

**GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAN (GUFÉ)**

**EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA**

**V. PLANGINTZALDIA**

2013-2017

**2013ko abenduaren 23a**

## AURKIBIDEA

### 0. SARRERA

#### 1. IV. PLANGINTZALDIAREN BALANTZEA

##### 1.1. LANPOSTUAK ETA HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

1.1.1. Lanpostuak eta hizkuntza eskakizunen betetze maila

1.1.2. Derrigortasun gabeko lanpostuen egoera

1.1.3. Hizkuntza eskakizunen egiaztatze-maila

##### 1.2. PERTSONALAREN HIZKUNTZA TREBAKUNTZA

1.2.1 Hizkuntza trebakuntzarako ikastaroak

##### 1.3. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO PLANA

1.3.1. Helburua

1.3.2. GUFeko egoerari buruzko diagnostikoa

1.3.3. Jarduerak

##### 1.4. IV. PLANGINTZALDIA EBALUATU ONDOREN EGINDAKO PROPOSAMENA

#### 2. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO V. PLANGINTZALDIKO PLANA (2013-2017)

##### 2.1. ZENBAIT GOGOETA

2.1.1. IV. Plangintzaldiaren balantzeko datuei buruzko zenbait gogoeta

2.1.2. Langileen adinaren eta borondatearen aldagaiak

2.1.3. Administrazioaren egitura organikoa eta horren eragina

##### 2.2. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO EGITASMOAK

2.2.1. Administrazio elebidunerantz

2.2.2. Egitasmoaren eragin-esparrua

2.2.3. Egitasmoaren indarraldia

2.2.4. Egitasmoaren helburu nagusiak

2.2.5. Egitasmoaren helburuak lortzeko egitura eta bideak

##### 2.3. MOTIBAZIOA ETA GIZARTE PRESIOA SUSTATU BEHARRA

2.3.1. Erakundearen pertsonalaren motibazioa sustatu

2.3.2. Gizarte presioa sustatu

##### 2.4. HIZKUNTZA NORMALIZAZIORAKO BATZORDE NAGUSIA

#### 3. GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEKO ADMINISTRAZIO-ATAL ELEBIDUNAK

3.1. ADMINISTRAZIO-ATAL ELEBIDUNEN DEFINIZIO ETA SAILKAPENA

3.2. ADMINISTRAZIO-ATALAK ETA ATALEN IZAERA

#### 4. HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK ALDATZEKO ETA DERRIGORTASUN-DATA BERRIAK ESLEITZEKO PROPOSAMENA

##### 4.1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNEN ALDAKETA

##### 4.2. DERRIGORTASUN-DATA BERRIAK ESLEITZEKO PROPOSAMENA

###### 4.1.1. Derrigortasun data berriak esleitzeko irizpideak

###### 4.1.2. Derrigortasun-datak berriak administrazio-unitate elebidunetan.

#### 5. IV. HIZKUNTZA-TREBAKUNTZAKO PLANA

##### 5.1. HIZKUNTZA GAITASUNA LORTZEKO JARDUERA-EGITASMOA

###### 5.1.1. Xedea

###### 5.1.2. Jarduerak

###### 5.1.3. Adierazleak

###### 5.1.4. Nori zuzenduta dago plan hau?

##### 5.2. IKASTAROEN ESKAINTZA OROKORRA

###### 5.2.1. Ikasturte osoko ikastaroak

###### 5.2.1. Udako ikastaroak

##### 5.3. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO JARDUERA-EGITASMOA

###### 5.3.1. Helburuak

###### 5.3.2. Jarduerak

###### 5.3.3. Adierazleak

## 0. SARRERA

Ohikoa bihurtu da Euskal Administrazioan bost urtero, gutxi, Erakundeen euskararen erabilera normalizatzeko planak diseinatu eta onetsi behar izatea. 2013. urtean V. Plangintzaldiari hasiera eman diogu zeren eta 86/1997 Dekretuaren 19. artikulua xedatzen duenaren arabera, plangintzaldi bakoitzaren lehen urtean Euskal herri-administrazioek euskara normalizatzeko planak onartu behar dituzte.

Beraz, paper zuri baten aurrean jartzen garenean plan berria zirriborrazeko (planak, euskararenak barne, paperean diseinatzen dira eta paperak gauza politak, desioak eta mirari bat edo beste ere onartzen du) ezin dugu ahaztu ez garela hutsetik abiatzen eta, dagoeneko, ibilbide bat egina dagoela, diseinatuko duguna V. Plangintzaldia izango baita.

V. Plangintzaldiko erronka nagusia IV. Plangintzaldian definitutako bera izango da, hau da, **hizkuntzaren erabilera sustatzea** laneko hizkuntza gisa, baina indar gehiagorekin, eta euskararen ezagutza baztertu gabe. Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko planak prestatzen hasi zirenetik 25 urte pasatu eta gero, argi dago administrazio elebidun bat lortzeko erronkari aurre egiteko masa kritiko nahikoa dagoela, betiere herritarren, erabiltzaileen eta familien eskaera eta GUFeko langileen borondatea kontuan hartuta.

## 1.- IV. PLANGINTZALDIAREN BALANTZEA

V. Plangintzaldirako Euskararen erabilera normalizatzeko Plana egiteari ekin behar diogunean, on litzateke, labur bada ere, IV. Plangintzaldia Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen zer izan den eta nola burutu den gainbegiratzea.

2009ko maiatzaren 25eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, GUFEn Gobernu Batzaren apirilaren 29ko Erabakia argitaratzearekin batera eman zitzaion hasiera IV. Plangintzaldiari Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen.

## 1.1. LANPOSTUAK ETA HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

### 1.1.1. Lanpostuak eta hizkuntza eskakizunen betetze maila

Hurrengo laukian ikusten denez, Plangintzaldiaren amaieran, 2013ko urtarrilaren 1ean ezarritako gutxieneko derrigortasun indizea (%42,85) 24 puntutan gainditu da (%**67,31**).

Halaber, EAEn derrigortasun data duten lanpostuen batez besteko ehunekoa (%54,5) 13 puntutan gainditu da.

LANPOSTUAK	GUZTIRA	EHUNekoETAN %
Lanpostuak	881	100,00
Derrigortasun-data duten lanpostuak Betetzailea dutenak Lanpostu hutsak	593 569 24	<b>67,31</b>
Derrigortasun-datarik gabeko lanpostuak	288	32,69

Datu nagusi horien barruan beste datu bati ere begiratu behar diogu, derrigortasun-data igarota duten **hizkuntza eskakizunen egiaztatze mailari**, hain zuzen ere:

LANPOSTUAK	GUZTIRA	EHUNekoETAN %
Derrigortasun-data duten lanpostuak	593	100,00
Betetzailea dutenak	569	95,95
Egiaztatu dute	468	82,39
Ez dute egiaztuta	100	17,61
Lanpostu hutsak	24	4.05

Derrigortasun data duten lanpostuak betetzen dituzten langileen **%82ak** lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatuta dute. Derrigortasun data duten lanpostuen betetze maila EAeko datuen maila berean gaude.

Hartzen baditugu hizkuntz eskakizuna, dagoeneko, egiaztatu dutenak gehi hutsik dauden lanpostuak alde batetik, eta hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez dutenak bestetik, zera izango dugu:

LANPOSTUAK	GUZTIRA	EHUNekoETAN %
Derrigortasun-data duten lanpostuak	593	100,00
Egiaztatu dutenak + lanpostu hutsak	468+24	<b>82,96</b>
Ez dute egiaztatu	100	<b>16,86</b>

Beraz, betetze maila oso altua da, hau da, derrigortasun-data igarota duten lanpostuen betetzailen **%82,96k** egiaztatu dute lanpostuaren hizkuntza eskakizuna. Egia da, lanpostuen %4,05a (24) bete gabe dagoela, baina lanpostu horiek beteko diren neurrian hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenekin beteko dira.

Urrats bat beherago jaitsiz gero eta lanpostuen betetzailen egoera aztertzen badugu, honako hau ikus dezakegu:

LANPOSTUAK	GUZTIRA	EHUNekoETAN %
Derrigortasun data duten lanpostuak	569	100,00
<b>HE egiaztatu dutenak</b>	468	<b>82,96</b>
- Titular betetzaila	268	
- Titulartasunik gabeko betetzailak	200	
<b>Ez dute HE egiaztatu</b>	100	<b>17,61</b>
- Titular-betetzaila	50	
- Egiaztaturiko H.E.: 1 txikiagoa	18	
- Egiaztaturiko H.E.: 2 txikiagoa	3	
- Hizkuntza eskakizunik ez	29	
- Titulartasunik gabeko betetzailak	50	
- Egiaztaturiko H.E.: 1 txikiagoa	20	
- Egiaztaturiko H.E.: 2 txikiagoa	2	
- Hizkuntza eskakizunik ez	28	

Lauki honen irakurketatik, hiru gauza azpimarratu nahi ditugu:

- Oso altua da hizkuntza eskakizuna egiaztatuta dutenen artean lanpostuen titularren + titulartasunik gabeko betetzailen ehunekoa. Lanpostua betetzen duten titularren artean (268+50=318), HEren betetze-maila %84,27koa da. Titulartasunik gabeko betetzailen artean (200+50=250) HEren betetze maila %80 da.
- Bestalde, titular gabeko betetzailen artean (200+50) hizkuntz eskakizuna egiaztatu ez dutenak, 28 (%11,2) dira. Horrek esan nahi du lanpostu hutsak ez direla betetzen hizkuntza-eskakizunaren baldintza betetzen ez duten pertsonekin,

salbuespen batekin: lan-poltssetan eskakizuna egiaztatuta duen inor ez dagoenean; kasu horretan, bitartekotasunak dirauen bitartean, ez da eskatzen baldintza hori.

- Nahiz eta derrigortasun-data igarota izan, hizkuntza eskakizunik egiaztatu ez duen betetzaileen ehunekoa %17,61ekoa da, baina horietatik ia erdiak euskararen ezagutzarik badu, hizkuntz eskakizunen bat egiaztatu baitu.

Dena den, datu hauen adierazgarritasuna hobeto ulertzeko, aurreko plangintzaldikoekin erkatzea litzateke egokien.

LANPOSTUAK	GUZTIRA			EHUNekoETAN (%)		
	II. Plangintzaldia	III. Plangintzaldia	IV. Plangintzaldia	II. Plangintzaldia	III. Plangintzaldia	IV. Plangintzaldia
<b>Betetzalea duten derrigortasun datako lanpostuak</b>	238	521	<b>569</b>	100	100	<b>100</b>
<b>HE egiaztatu dutenak</b> - Titular betetzalea - Betetzalea bai titularrik ez	149 129 20	413 287 126	569 <b>468</b> <b>100</b>	62,60	79,27	<b>82,96</b>
<b>Ez dute HE egiaztatu</b> - Titular-betetzalea - Egiaztaturiko H.E.: 1 txikiagoa - Egiaztaturiko H.E.: 2 txikiagoa - Hizkuntza eskakizunik ez - Titulartasunik gabeko betetzaleak - Egiaztaturiko H.E.: 1 txikiagoa - Egiaztaturiko H.E.: 2 txikiagoa - Hizkuntza eskakizunik ez	89 33 22 2 9 56 14 5 37	108 42 17 3 22 66 14 2 50	<b>100</b> <b>50</b> 18 13 <b>29</b> <b>50</b> 20 2 <b>28</b>	37,08	20,73	<b>17,61</b>



Hiru plangintzaldiak konparatu ondoren zera ondoriozta dezakegu:

- Datu bat nabarmentzen da II. Plangintzaldiaren amaieratik (2002) IV. Plangintzaldiaren amaierara (2012) arteko epean: 10 urte horietan, ia laukoiztu egin da lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten langileen kopurua, 149tik 569ra pasatu baita.
- Beste datu garrantzitsu bat: hizkuntza-eskakizuna duen lanpostu bat betetzen dutenen artean jaisten ari da eskakizun hori egiaztatu ez dutenen portzentajea; IV. Plangintzaldiaren amaieran % 17,61 zen. Hala ere, jaitsiera egon arren, portzentaje handia da erakundean euskararen erabilera areagotzeko erronka lortu ahal izateko.
- GUFEk erakundeko langileen hizkuntza-gaitasunaren arloan egin duen ahalegina nabarmentzekoa da, baita hutsik zeuden lanpostuak betetzeko hizkuntza-eskakizunaren baldintza eskatzeko egin duena ere. Izan ere, egoera bakarrean egin da salbuespena, hau da, lan-poltsetan baldintza hori betetzen zuen pertsonarik ez denean egon. Kasu horretan, ez da baldintza hori eskatu, aldi batean, lanpostua behin betiko bete arte lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna duen pertsona batekin. Azpimarratzeko ere GUFeko langileak egindako ahalegina eta lana hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko.

Ahalegin hori oso garrantzitsua da legea osorik bete ahal izateko, bestek beste. Funtzio Publikoari buruzko Legean ezarritakoaren arabera, lanpostu bat beteko duen pertsonak dagokion hizkuntza-eskakizuna izan behar du, lanpostua bitarteko langile gisa betetzen duenean ere. Baina, ahalegin hori garrantzitsua da batez ere GUFEn euskara gehiago erabiltzea eta etxebizitza batean laneko hizkuntza eta zerbitzu-hizkuntza izatea lortu delako. Edonola ere, lan-poltsetan ez denez beti egoten bajak edo, zerbitzuaren beharriaren ondorioz, bestelako hutsuneak betetzeko dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duen pertsonarik, baja-egoera konpondu bitartean edo lanpostua behin betiko bete arte, GUFEk eskaintzen duen zerbitzuan ahalik eta kalterik txikiena eragiteko, ezohiko egoerak onartu behar izaten dira, eta lanpostu horiek dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta ez duten pertsonekin betetzen dira aldi batean.

### 1.1.2. Derrigortasun gabeko lanpostuen egoera

Derrigortasun-data esleituta daukaten lanpostuen egoeraren azterketa egin ondoren, era arin batean bada ere, begiradatxo bat bota behar diogu hizkuntza eskakizunaren derrigortasunik ez duten lanpostuen egoerari. Hona hemen laukia:

LANPOSTUAK	GUZTIRA	EHUNekoETAN %
Derrigortasun-datarik ez duten lanpostuak	288	100,00
Betetzailerak dutenak <b>HE egiaztatu dutenak</b> - Titular betetzailerak - Titulartasunik gabeko betetzailerak	<b>87</b> 35 52	98,61
Lanpostu hutsak	4	1,39

Datu hauen arabera egiaztatu daiteke 87 langile gehiagok betetzen dutela lanpostuak esleituta daukan hizkuntza eskakizuna, nahiz eta derrigorrezkoa ez izan.

Beraz, hurrengo laukian biltzen dira GUFeren datu orokorrak.

LANPOSTUAK	GUZTIRA	EHUNekoETAN %
Lanpostuak	881	100,00
Egiaztatu dutenak guztira+ lanpostu hutsak derrigortasun datarekin.	569+87+24 = <b>680</b>	<b>77,18</b>

Ondorio gisa ikus daiteke Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen langileen hiru laurdenek (**%77,18**) egiaztatu dutela bere lanpostuaren hizkuntza eskakizuna.

### **1.1.3. Hizkuntza eskakizunen egiaztatze-maila**

Derrigortasun-dadari dagokionez, administrazio-atala elebiduna izan ala ez, hizkuntz egoera ez da berdina zerbitzu, zentro eta etxebizitza guztietan. Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuen portzentajea txikiagoa da elebidunak ez diren administrazio-ataletan: Gallarta Laguntza Zentroa, Urduña Laguntza Zentroa, Santurtziko Itsastarren Etxea eta Argileku-Larrasolo. Hala ere, itsastarren etxea kenduta, elebidunak ez diren gainerako administrazio-ataletan oso altua da lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna duten langileen portzentajea, hau da, pertsona askok egiaztatu dute derrigorrezkoa izan ez arren.

Zubiete Laguntza Zentroa administrazio-atal elebiduna zen zabaldu zenean, III. Plangintzaldian, eta, lanpostu guztiak hutsik zeudenez, guztiei aplikatu zitzairen, lanpostuka, gutxieneko derrigortasun-indizea: % 37,35. Zubiete Laguntza Zentroan sortutako lanpostu hutsetan, IV. Plangintzaldian, administrazio-atal elebidunetan derrigortasun-datak esleitzeko ezarritako irizpideak erabili dira.

<u>Zerbitzuak, zentroak eta etxebizitzak</u>	Lanpostuak			Hizkuntza eskakizuna egiaztatze-maila	
	Guztira	Derrigortasun data dutenen kopurua	Derrigortasun data dutenen ehunekoa	Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta + lanpostu hutsak	Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta dutenen ehunekoa
01 Zerbitzu Zentralak + EHU +GIZATEK	87	77	88,50	56	64,36
02 Etxebizitzen sarea	106	68	64,15	65	61,32
03 Argileku- Larrasolo	3	1	33,33	3	100
04 Leioa Laguntza Zentroa	218	149	68,34	127	58,25
05 Birjinetxe Laguntza Zentroa	117	77	65,81	50	42,73
06 Elorrio Laguntza Zentroa	62	50	80,64	49	79,03
07 Gallarta Laguntza Zentroa	64	21	32,81	39	60,93
08 LUSA Laguntza Zentroa	31	19	61,29	18	58,06
09 Orduna Laguntza Zentroa	40	17	42,05	28	70,00
10 Zumelegi Laguntza Zentroa	35	33	94,28	31	88,57

<b><u>Zerbitzuak, zentroak eta etxebizitzak</u></b>	<b>Lanpostuak</b>			<b>Hizkuntza eskakizuna egiaztatze-maila</b>	
	Guztira	Derrigortasun data dutenen kopurua	Derrigortasun data dutenen ehunekoa	Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta + lanpostu hutsak	Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta dutenen ehunekoa
10 Zubiete Laguntza Zentroa	22	9	40,90	10	45,45
11 Bekoetxe Eguneko Zentroa	13	13	100	13	100
12 Lurgorri Eguneko Zentroa	4	4	100	4	100
13 Errekalde Laguntza Zentroa	36	24	66,66	21	58,33
14 Loiu Udaloste Laguntza Zentroa	36	27	75	24	66,66
15 Itsastarren etxeak	8	4	50,00	2	25
<b>GUFE</b>	<b>881</b>	<b>593</b>	<b>67,30</b>	<b>492+87</b>	<b>65,72</b>

## 1.2. PERTSONALAREN HIZKUNTZA TREBAKUNTZA

Erakundeko langileen hizkuntza-trebakuntza gauzatu ahal izateko, 2008-2012ko Jarduera Plana onartu zen. Plan horretan bi tresna nagusi aurreikusten dira helburuak lortzeko. Batetik, ikastaro motak zehazten dira trinkotasunen arabera, eta langileak ikastaroetara joan ahal izateko baldintzak arautzen dira. Baita ere, langileek beren hizkuntza-trebakuntzarako izango duten ordu-kredituen taula zehazten da. Bestetik, Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana bi modulutan banatuta, gehienbat, atal elebidunei zuzenduta.

### 1.2.1. Hizkuntza trebakuntzarako ikastaroak

Erakundeko pertsonal guztiari zuzentzen zaio Jarduera Plana. Beraz, langile guztiek daukate hizkuntza-trebakuntzako ikastaroak egiteko aukera Planaren barruan. Hala ere, GUFeko langile guztiek ez dute erakundearekiko kontratu-harreman bera, eta horren ondorioz aukerak eta lehentasunak ezberdinak izan behar dira, langile bakoitzak ezarria duen hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-datarekiko egoeraren arabera.

Ondoko laukian, Jarduera Planaren barruan burutu diren ikastaroetara joan diren langileen matrikula kopurua eta eman dituzten ordu-kopuruak jasotzen dira, ikasturte ikasturte, ikastaro motak zehazturik.

JARDUERA PLANAREN BARRUAN MATRIKULAZIO ZENBAKIAK

Ikastaro mota	2008/2009 Ikast.		2009/2010 Ikast.		2010/2011 Ikast.		2011/2012 Ikast.	
	Matrikulak	Orduak	Matrikulak	Orduak	Matrikulak	Orduak	Matriku.	Orduak
Trinkoa .....	44	19.800	59	26.550	45	20.250	46	20.700
Lanordu barruko ordu bikoia .....	5	1.480	5	1.480	1	296	2	592
Lanordutik kanpoko ordu bikoia .....	44	14.520	51	16.830	23	7.590	20	6.600
Autoikaskuntza			8	1.520	8	1.520	5	950
Udako barnetegia	5	450	4	360			1	90
GUZTIRA .....	98	36.250	127	46.740	77	29.656	74	28.932

Pertsona barik matrikulen kontzeptua erabili da, adierazgarriago baita, pertsona batzuek matrikula bat baino gehiago egiten dutela kontuan harturik; ikastaro trinkoetan, esate baterako, lau hilabeteko iraupena dutenez, pertsona batek bi matrikula egin ditu ikasturte berean.

**PLANAREN BARRUKO IKASTAROETAN PARTE HARTU DUTEN LANGILEEK EGIAZTATURIKO  
HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK**

	2008/2009 IKASTURTEA	2009/2010 IKASTURTEA	2010/2011 IKASTURTEA	2011/2012 IKASTURTEA	GUZTIRA
1.HE	2	2	3		7
2.HE	2	5	4	3	14
3.HE	1	5		1	7
GUZTIRA	5	12	7	4	28

**PLANAREN BARRUKO IKASTAROETAN PARTE HARTU EZ DUTEN LANGILEEK EGIAZTATURIKO  
HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK**

	2008/2009 IKASTURTEA	2009/2010 IKASTURTEA	2010/2011 IKASTURTEA	2011/2012 IKASTURTEA	GUZTIRA
1.HE	7	8	6	6	27
2.HE	9	13	15	7	44
3.HE	4	5	7	3	19
GUZTIRA	20	26	28	16	90

Horrek esan nahi dau IV. Plangintzaldian 118 pertsonak hizkuntza eskakizunen bat egiaztatu dutela urtero Hizkuntza Normalizazio Atalak antolatzen dituen ohizko deialdietan.

### **1.3. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO PLANA**

#### **1.3.1. Xedea**

20 urte pasatu dira jada Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak euskara ikasteko lehen plana diseinatu eta ezarri zuenetik. Eta, helburuak eta datuak kontuan hartuta, arrakastatsua izan dela esan daiteke. Baina, hizkuntza ezagutzeak ez dakarrenez, berez, hizkuntza erabiltzea, IV. Plangintzaldian GUFEk erabaki zuen euskararen erabilera sustatzeko plan bat diseinatzea.

Plan hori beharrezkoa da euskara dakiten guztiek ez dutelako erabiltzen; hizkuntza-ohiturak aldatzea oso zaila delako. Hitz batez, plana beharrezkoa da euskara erabili nahi izatetik erabiltzera, erabiltzeko konpromisoa hartzetik konpromisoa betetzera jauzi kualitatibo handia dagoelako, eta ez delako langileen ardura soilik.

#### **1.3.2. GUFeko egoerari buruzko diagnostikoa**

2011ko lehen seihilekoan egin da.

Diagnostikoa egiteko, inkesta bat bete zen zentro eta etxebizitza bakoitzeko prestakuntza unitateetan.

Inkesta horretan, ahozko harremanetan (erabiltzaileekin, lankideekin, familiekin eta kanpoko erakundeekin, zerbitzu zentralekin, Gizarte Ekintza Sailarekin) eta idatzizko harremanetan (barrukoak eta kanpokoak) erabilitako hizkuntzari buruzko informazioa eskatu zen.

##### **1.3.2.1 Inkesten emaitzei buruzko azterketa orokorra.**

Indarguneak: langile batzuek euskararekiko duten motibazioa eta jarrera positiboa.

Ahulguneak: eguneroko lanak, lan-zamak eta presazko prozedurek oztopatu egiten dute bi hizkuntza ofizialen erabilera orekatua. Ekipo, zentro, zerbitzu edo etxebizitza bereko langileek euskararen ezagutza-maila ezberdina izateak gaztelaniaren erabilera nagusi izatea eragiten du. Hizkuntzaren erabileran dauden ohiturak aldatzeko erresistentzia. Euskararekiko konpromisoa langileen borondatearen mende dago. Aplikazio informatikoak gaztelaniaz.



### **1.3.2.2 Dibisio edo zerbitzuaren arabeko azterketa**

#### *Ume eta Nerabeentzako Zerbitzuen Dibisioa*

- Mungia Etxebizitzan, euskara laneko hizkuntza da. Zurbaran, Zabalburu, Larreagaburu eta Argileku-Larrasolo etxebizitzak ez ziren administrazio-unitate elebidunak.
- Idatzizko harremanetan gaztelania erabiltzen zen. Murrieta Etxebizitzan, bileretarako deialdiak euskaraz egiten ziren, eta Basauri Etxebizitzan euskaraz idazten ziren D ereduko umeen tutoreentzako idazkiak.
- Ahozko harremanetan gaztelania zen nagusi. Fueros, Murrieta, Txurdinaga eta Basauri etxebizitzetan bazeuden euskara erabiltzen zuten pertsonak. D eta B ereduetako umeekin euskara erabiltzen zuten eskolako ariketak egiteko.

#### *Zerbitzu Soziosanitarioen eta Adinekoentzako Zerbitzuen Dibisioa*

- Gallarta Laguntza Zentroa ez zen administrazio-unitate elebiduna. Euskaldun zaharrek euskara erabiltzen zuten ahozko harremanetan.
- Birjinetxe Laguntza Zentroa ez zegoen zabalik eta, beraz, ez da sartu diagnostikoan.
- Idatzizko harremanak: Leioa Laguntza Zentroan zein Elorrio Laguntza Zentroan, errotulu guztiak elebidunak ziren.

Leioa Laguntza Zentroan, iragarki laburrak bi hizkuntzetan idazten ziren, eta gainerakoak, gaztelaniaz. Zentro horretan, langileen eskaerak euskaraz egiten ziren, langilearen arabera.

Elorrio Laguntza Zentroan, familientzako idazkiak bi hizkuntzetan idazten ziren; gainerakoak euskaraz edo gaztelaniaz, egiten zituenaren arabera. Barruko idazkiak gaztelaniaz egiten ziren; trebatzailearen laguntzarekin, astiro-astiro bi hizkuntzetan egiten hasi ziren.

- Ahozko harremanak: langile bakoitzaren borondatearen arabera, euskaraz edo gaztelaniaz.

### Desgaitasuna duten Pertsonentzako eta Gizarteratzeko Zerbitzuen Dibisioa

- Urduña Laguntza Zentroa ez zen administrazio-unitate elebiduna; hala ere, seinale guztiak bi hizkuntzetan zeuden, eta langile batzuk euskara erabiltzen zuten ahozko harremanetan.

- Idatzizko harremanak: errotuluak zituzten zentroetan, errotuluak elebidunak ziren. Idazki gehienak gaztelaniaz egiten ziren, familientzako idazkiak izan ezik; kasu horretan, bi hizkuntzetan idazten ziren Bekoetxe Eguneko Zentroan, Lurgorri Eguneko Zentroan eta Zumelegi Laguntza Zentroan. Zumelegin, kanpoko erakundeetara eta zerbitzu zentraletara bidalitako idazkiak bi hizkuntzetan idazten ziren trebatzailearen laguntzarekin. Udaloste eta Lusa laguntza zentroetan, langilearen arabera, dokumentu batzuk bi hizkuntzetan idazten ziren, eta Udaloste Laguntza Zentroan pertsona batek lanerako protokolo bat itzuli zuen.

Ahozko harremanak: Zentro guztietan lankideekin, familiekin, kanpoko erakundeekin eta zerbitzu zentraletan izandako harremanak, langilearen arabera, euskaraz edo gaztelaniaz izan ziren.

Erabiltzaile euskaldunekin Lurgorri Laguntza Zentroan banako jarduerak euskaraz izan ziren. Zumelegi Laguntza Zentroan erabiltzaile euskaldunekin harreman gehienak euskaraz izan ziren. Gainontzeko zentroetan langilearen arabera, euskaraz edo gaztelaniaz.

### Zerbitzu Zentralak eta Egoitza Harreraren Unitatea.

-Idatzizko harremanak: Errotulazioa euskaraz eta gaztelaniaz zegoen. Komunikazio idatziak, lankideen, zentroen, etxebizitzaren eta kanpoko erakundeen artekoak zein zerbitzu zentraletan egindako eskaera pertsonalak, euskaraz edo gaztelaniaz izan ziren, langilearen arabera; gehienak gaztelaniaz. EHU-n gaztelaniaz izan ziren, langile bakoitzak hizkuntza batean edo bestean egindako eskaera pertsonalak izan ezik.

-Ahozko harremanak: langile bakoitzaren arabera euskaraz edo gaztelaniaz.

Euskararen erabilera sustatzeko saio presentzialak zerbitzu hauetan martxan jarri zirenetik 2008. urtean, gero eta gehiago erabiltzen da euskara harreman eta lan hizkuntza gisa.

### 1.3.2. Jarduerak

Euskararen erabilera sustatzeko plan hau honako hiru jardueratan gauzatu zen:

- Modulu presentzialak
- On Line modulua
- EraMi-ak

IV. plangintzaldian egoera formaletan zein informaletan euskara erabiltzen duten langileen kopuruak gora egin du nabarmen.

#### 1.3.2.1. Modulu presentzialak

2008-2009 ikasturtean jarri ziren martxan Zerbitzu Zentraletan, Egoitza Harreraren Unitatean (2009-2010 ikasturtean), Elorrio Laguntza Zentroan eta Zumelegi Laguntza Zentroan administrazio atal elebidunak izateagatik eta 2. HE edo maila altuagoko langileen portzentajea oso altua izateagatik.

##### 1.3.2.1.1. Zerbitzu Zentralak eta Egoitza Harreraren Unitatea

Taldeko saioak egiten ziren, astean ordu eta erdiko bi saio, eta bertan hizkuntza trebakuntzara bideratutako jarduerak burutzen ziren.

Parte hartzea honakoa izan da:

2008/2009 IKASTURTEA	2009/2010 IKASTURTEA	2010/2011 IKASTURTEA	2011/2012 IKASTURTEA
22	24	29	18

- Indarguneak: Parte hartu zuten langileen motibazioa. Euskararen erabilera areagotu egin zen zerbitzuan, lan hizkuntza zein harreman hizkuntza gisa.

-Ahulguneak: Taldeak heterogeneoak dira (EHUn izan ezik), eta, ondorioz, lan arloarekin lotutako hizkuntza jarduerak gauzatzeko zail egiten da. Asistentzia eskasa, lan zama eta lizentziak direla eta. Hizkuntza ohiturak aldatzeko erresistentzia taldeko saioetatik kanpo.

Ahulgune horiek gaitzera aldera, 2011/2012 ikasturtean moduluaren antolaketa aldatu egin zen: astean ordu beteko taldeko saioa eta hamabostean behineko banako saioa.

Horrela, banako saio hauetan langile bakoitzaren hizkuntza maila eta zereginak kontuan hartutako jarduerak burutu ziren.

EHUren kasuan asteen bi saioko moduluari eutsi zitzaion taldearen homogeneotasunak unitateko helburuak ezartzea ahalbideratzen baitzuen.

### **1.3.2.1.2. Elorrio Laguntza Zentroa eta Zumelegi Laguntza Zentroa**

Asteen bi egunetako taldeko saioak egiten ziren, ordu erdi edo ordubetekoak lanpostuaren arabera.

-Indarguneak: parte hartzaileen motibazioa.

-Ahulguneak: Txandaka lan egitea saioen jarraipenerako eta eraginkortasunerako oztopoa da. Era berean, arreta zuzeneko Langileen lan zama oztupo da saioetan parte hartu ahal izateko.

Pertsona bakoitzak hartutako orduen batez bestekoaren parte hartzea honako hau izan da:

2008/2009 IKASTURTEA	2009/2010 IKASTURTEA	2010/2011 IKASTURTEA
49 pertsona Ordu bi	81 pertsona Hiru ordu	64 pertsona Bost ordu

Zentro bi hauetan modulu presentzialak abian jarri eta urte bi eta erdiren ostean ondorioztatu zen modulu hau ez dela arreta zuzeneko zentroetarako egokia.

2012/2013 ikasturtean Laguntza Zentro eta Etxebizitzetan euskararen erabilera sustatzeko modulua on line eran izan zen.

### **1.3.2.2. On Line ikastaroak**

#### **1.3.2.2.1. Moodle**

2012/2013 ikasturtetik aurrera Zentro eta Etxebizitzetako langileei begirakoa. Helburua lanean euskararen erabilera sustatzea eta galdutako ezagutza maila berreskuratzea da. Ikastunitateetako gaiak lanarekin lotutakoak dira.

Bi modulutan banatzen da:

-A modulua: idaztarauak eta laneko ohiko idatziak.

-B modulua: lanpostu bakoitzaren zereginekin lotutako dokumentu eta idatziak.

2012/2013 ikasturtean 27 pertsonak egin zuten modulua osorik. Beste 26 pertsonak, ikastaroan izena eman arren, ez zuten modulua burutu bi arrazoi nagusirengatik: denbora falta, euskararen ezagutza nahikorik ez.

-Indarguneak: Langileen motibazioa.

-Ahulguneak: Arazo informatikoak. Ez dute saio presentzialik ahozkoa lantzeko.

#### **1.3.2.2. Administrazio hizkera 1.0.**

Ikastaro honen bitartez, hizkuntza ulergarriagoa egiteari begira, administrazio hizkuntzaren erabileran egin beharreko aldaketaz sentsibilizatu nahi dira. Era berean langileei testu administratibo argiak, zuzenak eta egokiak sortzeko bitartekoak jarri nahi zaizkie eskura.

2012an administrariei eta teknikariei eskaini zitzairen. 8 pertsonak egin zuten.

Ikastaroa egin zutenek balorazio positiboa egin zuten, bai edukiei, bai trebatzaileak egindako lanari buruz.

#### **1.3.2.3. EraMia**

2008-2009 ikasturtean Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundean izandako lehenengo EraMia jarri zen martxan Mungia Etxebizitzan.

Unitate Administratibo txikia da (9 langile: 7 hezitzaile eta 2 sukaldari/zerbitzari). Hezitzaileetako batek 2.HE zuen eta gainontzekoek 3.HE; Sukaldari/zerbitzarien taldean batek 1.HE zuen eta guztiek, zuzendariaren laguntzarekin, lanean euskaraz egiteko nahia zuten. Adingabeen arretan aritzen dira, euskaren erabilera sustatzeko funtsezko taldea.

EraMiaren hasierako helburua, talde osoak hala adostuta, Etxebizitzan gaztelania eta euskara era orekatuan erabiltzea izan zen.

Azpimarratzekoa, aitortzekoa eta eskertzekoa da talde osoaren ahalegina, dedikazioa, ilusioa, lana eta euskararekiko konpromisoa EraMia ezartzeko proposatu zitzairen egunetik bertatik. Urteik urtera hasierako helburuak gainditu egin dira.

Gaur egun, esan liteke euskararen erabilerak Etxebizitzan aurrera egin duela, bai kantitatean bai kalitatean, eta lan eta harreman hizkuntza bihurtu dela. Trebatzailearen laguntzari eutsi egiten zaio banako tutoretzen bitartez; banako programak eta txostenak egiteko laguntza ematen zaie.

Erakundeak, bere aldetik, Etxebizitzara heltzen diren idatziak (Foru Aginduak, Kasu Planak, Txostenak...) euskaraz heltzea eta Etxebizitzatik ateratzen diren idatziek jarraipena euskaraz izatea lortu beharko luke.

#### 1.4. IV. PLANGINTZALDIA EBALUATU ONDOREN EGINDAKO PROPOSAMENA

- **Hizkuntza trebakuntzarako proposamena**

Euskara ikastaroak eraginkorrak dira langileek hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko. Hori dela eta, hizkuntza ikasten laguntzen duten baldintzak mantendu behar dira, lan hizkuntza izan ahal izateko maila egokia bermatu arte. Helburu hori betetzeko gutxieneko bermea 3. HEak ematen du. Horrenbestez, GUFeko langile guztiei 3. HEra arteko prestakuntza berrmatuko zaie, nahiz eta bere lanpostuari esleitutako HE baxuagoa izan, beti ere ordu kreditua beteta ez badu.

- **Erabilera Sustatzeko Planerako proposamena**

Helburua da hizkuntza bien berdintasunezko erabilera lortzeko urrats eraginkorrak ematen jarraitzea.

Talde presentzialak: hau heterogeneoa denean, lan arlo ezberdinetako pertsonak osatua, honelaxe antolatuko da: astero ordu eta erdiko saio bi hiru ikasturtez; laugarren ikasturtetik aurrera, astero ordu bateko taldeko saioa eta, hamabostean behin, ordu bateko banako saioa.

On line ikastaroak:

-Moodle: zentro eta etxebizitzetako langileentzat. Ikastaroa on line egin bitartean, hamabostean behin bi orduko saio presentzialak egingo dira.

-Administrazio hizkera: administrari eta teknikarientzat, dituzten zereginen artean, dokumentu administratiboak egin behar izanez gero.

EraMiak bultzatu

Bestetik, EraMian edo aurrez aurreko moduluan parte hartu ezin duten langileei beste aukera bat emateko eta euskararen erabilera modu eraginkorragoan sustatzeko asmoz, beste aukera bat eskaintzen zaie 2. HE egiaztatu duten langileei, Administrazio ataleko Moduluan parte hartzea, hain zuzen ere.

Modulu horretan, gutxienez, administrazio ataleko langileen %50ek parte hartu beharko dute. Batez ere, ahozkoari dagozkion alderdiak eta atal horren lan esparruarekin lotutako dokumentuak landuko dira.

Aurreko baldintzak betetzen badira, Hizkuntza Normalizaziorako atalak, modulua eskatu dutenekin batera, horretarako ad hoc plana diseinatuko du.

## 2. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO V. PLANGINTZALDIKO EGITASMOA (2013-2017)

### 2.1. ZENBAIT GOGOETA

#### 2.1.1. IV. Plangintzaldiaren balantzeko datuei buruzko zenbait gogoeta

Aurreko puntuan IV. Plangintzaldiari buruz egin dugun balantzea eta bertan lortutako informazioaren analisia abiapuntua izan behar dira plangintzaldi berrirako planaren koordinatuak egiteko.

LANPOSTUAK	GUZTIRA	EHUNekoETAN %
Derrigortasun-data duten lanpostuak	593	100,00
Betetzaillea dutenak	569	95,95
Egiaztatu dute	468	82,39
Ez dute egiaztatu	100	17,61
Lanpostu hutsak	24	4.05

IV. Plangintzaldiaren amaieran (2012 abendua), Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko lanpostuak **881** ziren guztira. Lanpostu guztietatik ehuneko **67,30** (593) derrigortasun-data esleituta du. Derrigortasun-data duten lanpostuen %95,95 beteta daude (569). %4,05 hutsik daude. Derrigortasuna duten lanpostuen betetzailen **%82,89** lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatu dute, eta %5ek aurreko hizkuntza eskakizuna.

Hartzen baditugu hizkuntza eskakizuna, dagoeneko, egiaztatu dutenak gehi hutsik dauden lanpostuak alde batetik, eta hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez dutenak bestetik, zera izango dogu:

LANPOSTUAK	GUZTIRA	EHUNekoETAN %
Derrigortasun-data duten lanpostuak	593	100,00
Egiaztatu dutenak + lanpostu hutsak	468+24	<b>82,96</b>
Ez dute egiaztatu	100	<b>16,86</b>

Beraz, betetze maila oso altua da, hau da, hau da, derrigortasun-data indarrean duten lanpostuen betetzailen **%82,96k** egiaztatu dute lanpostuaren hizkuntza eskakizuna.

Egia da lanpostuen %4,05 bete gabe dagoela, baina lanpostu horiek beteko diren neurrian, hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenekin beteko dira.

Herri-administrazioen hizkuntza normalizaziorako prozesuaren oinarritzko irizpidea hizkuntza eskakizunen sistema izan da, lanpostua gauzatzeko beharrezko ezagutza. Aurreko laukian ikusten denez, Plangintzaldiaren amaieran, 2013ko urtarrilaren 1ean ezarritako gutxieneko derrigortasun indizea (%42,85) 24 puntutan gainditu da (**%67,31**). Halaber, EAEn derrigortasun data duten lanpostuen (%54,5) batz bestekoaren ehunekoa baino 13 puntu handiagoa da.

Datu hauek, bai erakundeak bai bertako langileek egindako ahalegina nabarmentzen dute.

Gauza bat argi geratu da aurreko planei eta IV plangintzaldiari buruz eginiko balantzeetan: herri-administrazioetako langileen hizkuntza gaitasuna nabarmen hobetu da. Datu horiek guztiak deigarriak diren arren, hutsune nabarmenak sumatzen dira azterketa erabileraren ikuspuntutik egiten denean. Urteetako eskarmentuak erakutsi digu ez dela nahikoa hizkuntza eskakizunen bat egiaztatuta izatea hizkuntza erabiltzeko. Hizkuntza eskakizun batzuek ez dute euskararen gaitasun maila nahikorik bermatzen eguneroko zereginei aurre egiteko; ez eta norberaren eta inguruko arteko harremanak hizkuntza horretan izateko ere. Hori nabarmen gertatzen da 1. HEren kasuan eta, zereginen arabera, 2. HErekin ere bai. Erabileran benetan sakondu nahi badugu —sortze lanaren bidetik, bereziki—, ezinbestekoa da honako hau bermatzea: eskuratutako euskara mailak hizkuntza horretan erosotasunez aritzeko adinako ezagutza ematea. Beraz, hizkuntza trebakuntza 3. Hizkuntza eskakizuneraino bermatzen da, nahiz eta lanpostuak hizkuntz eskakizun txikiago bat esleituta eduki.

### **2.1.2. Langileen adinaren eta borondatearen aldagaiak**

Badago aldagai bat, nahitaez, kontuan hartu behar duguna hizkuntza-gaitasuna lortzeko orduan: adina, hain zuzen. Izan ere, 86/1997 Dekretuak xedatzen du, 45 urtetik gora dutenek eska dezaketela lanpostuaren hizkuntza eskakizuna betetzetik salbuetsita geratzea. Horrek esan nahi du adin horretatik gora zaila dela hizkuntza bat lanpostuaren zereginak eskatzen duen mailan ikastea. Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko funtzionarioen edo lan-harreman finkoa duten langileen batz besteko adina **48,75** urtekoa da. Adinaren batz bestekoa zertxobait jaisten da, Erakundeko plantilla osoa (langile finkoak + aldi baterakoak) hartzen bada: 47,02. Beraz, langileen kopuru haundi bat euskara ikasteko atalase mailatik gora dago. Horiek horrela, GUFeri dagokionez, honako hau pentsa daiteke: hizkuntza eskakizuna lortu ez duen kopuru



horren langile gehienek erretiroa hartu arte hizkuntza bakar batean baino ez dutela lan egingo.

Hizkuntza eskakizuna lortu arren euskara erabiltzeko borondaterik ez dutenak ere aintzat hartu behar ditugu kasuistikaren deskribapena eta egoeraren azterketa osotzeko. Izan ere, zenbait kasutan hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko egiten diren ahaleginek helburu instrumental hutsa izaten dute, hau da, ibilbide profesionalean gora egiteko edota lanpostuz aldatzeko aukera murriztagoa da lanpostuen hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez dutenentzat lortu dutenentzat baino.

### **2.1.3. Administrazioaren egitura organikoa eta bere eragina**

Administrazioa, bere eginkizunak burutzeko administrazio-ataletan egituratzen da. Definizioz, administrazio-atal elebidunak dira beren funtzio eta zereginak bi hizkuntza ofizialetan egin ditzaketenak. Baina, administrazio-atalak elebidun izendatzeko arrazoia ez da —logikak agintzen duen bezalaxe— ataleko langileek hizkuntza ezagutu eta erabiltzeko duten gaitasuna, administrazio-atalak duen izaera baizik. Hori dela eta, jendaurreko eta gizarte izaerako administrazio-atalak elebidun izendatuko dira beti, atal horiek osotzen dituzten langileen hizkuntzaren ezagutza maila kontuan hartu gabe. Gainera, Funtzio Publikoari Buruzko Legeak derrigortasun-data edukita hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabe duten langileak derrigortasun gabeko maila bereko beste lanpostu baten ezartzea ahalbidetzen du. Oraingoz, neurri hura ez da inolako administrazioan hartu eta segur aski praktikan jartzea ez da erraza izango, langileen beste eskubide batzuekin topo egiten duelako, egoera nahastuz.

Hizkuntza egoeraren azterketa honetan ezin dugu ahaztu, era berean, Administrazioan lanean ari den belaunaldiak bere ikasketak, gehienbat, gaztelaniaz egin dituela, eta ibilbide profesionala ere gaztelaniaz garatu duela. Beraz, hizkuntza ohiturak ondo errotuta daude lan-esparruan. Ezin pentsa, bada, bat-batean hizkuntza ohiturak alda daitezkeenik plan baten eragin hutsez.

## **2.2. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO EGITASMOAK**

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizazio prozesua arautzen duenak, 4. artikuluan xedatzen du hizkuntza normalizazio prozesuan erakunde bakoitzak egin behar duela euskararen erabilera normalizatzeko plana.

Dekretu horren 2. artikuluan zehazten da herri agintek euskaren erabilera normalizatzeko hartu beharreko neurriak hartuko dituztela, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza izan dadin.

Hortaz, Administrazioaren hizkuntza normalizatzea herritarrei zerbitzuak euskaraz eskaintzea da, ahoz zein idatziz, (zerbitzu hizkuntza), eta, era berean, administrazio horretako langileek lanpostuari dagozkion zeregin guztiak (lan hizkuntza) euskaraz egiteko gai izan behar dute.

### **2.2.1 Administrazio elebidunerantz**

Hizkuntza Normalizazioa lortzera begira sortu behar dugun administrazioa erronka handia da, gurean, funtsezko helburua. Euskara zerbitzu hizkuntza izateari dagokionez, Normalizazio Planen bitartez lortu da herritarrekin euskara harreman hizkuntza izan dadin bermatzeko gai izatea. Honen froga dugu arreta euskaraz jaso ez izatearren jasotako kexa kopuruaren beherakada nabarmena, momentu honetan garrantzirik gabekoa. Euskara lan hizkuntza izateari dagokionez, egoera oraindik lortu beharreko gutxienekoetatik urruti dago, nahiz eta aurrera pausuak egin izan diren.

Administrazioan gero eta gehiago sarean lan egiten dela. Beraz, euskara lan-hizkuntza izateko, lehen mailako sareko kideak, hau da, administrazio-atal bereko langile guztiek, behintzat, behar besteko ezagutza maila izan behar dute beren funtzioak euskaraz burutzeko. Eta egoera horretatik, momentuz urrun gaude.

Horrez gain, kontuan hartu behar ditugu aipatutako egoerak eta horien ezaugarriak: hizkuntz ohiturak, adina, pertsonalaren politikan funtzio publikoak ezarritako mugak, euskaraz aritzeko borondate eza. Faktore horiek euskararen normalizazioa lan hizkuntza gisa oztopatu eta zaildu egiten dute.

Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko planak eta plangintzaldiak burutzeko premia sumatzen badugu, elebidun izan nahi duen administrazio batean — Administrazioak bi hizkuntz ofizial dituela xedatu baitu—, euskarak, oraindik, erabilera normalizatua ez duelako da.

Ikusi dugun bezalaxe, erabilerari dagokionez, langileek, oro har, bi hizkuntzak maila bertsuan jakitea da Administrazioan elebitasun orekatu bat lortzeko lehen baldintza. Euskararen ezagutzaren aurrerakada handia gertatu bada ere, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak, oraindik —eman ditugun datuen arabera—, baldintza hori ezin dugu guztiz bete. Beraz, oraindik ere, langileak euskalduntzeari tarte zabala eskaini behar zaio V. plangintzaldian.

Horrekin batera, zenbait lan-funtzio euskaraz garatu ahal izateko bermatu behar da hizkuntzaren ezagutza, eta horretarako zenbait lanposturen hizkuntz eskakizunak egokitu behar dira.

Euskara lan-hizkuntza normala bihurtzeko trebakuntza berezia landuko da, hizkuntza ohitura berriak sortzearen. Lanpostuaren hizkuntza eskakizuna lortu duten guztiek aukera izango dute trebakuntza berezi horretan parte hartzeko. Baina, Erakundeak aintzat hartu behar ditu motibazioa sustatzeko zein ildo honetatik egiten diren ahaleginak.

Bestalde, ezinbestekotzat jotzen dugu bide horretan aurrera egiteko erreferenteak izatea; horregatik, lidergo informala deritzogun aldagaia landuko dugu. Bide hori urratuz, ikerketa-interbentzioen bidez, administrazio-unitate batzuetan kide guztien adostasunez, saiatuko gara euskara lan-hizkuntza normala bihurtzen.

### ***Lana eta lan-hizkuntza***

Bada beste gauza bat kontuan hartu behar duguna: Administrazioak, kasu honetan GUFEk, produktu batzuk eskaintzen ditu eta horien artean ez dago euskara produktu gisa. Besterik da, produktu horiek hizkuntza batean eskaini behar direla, eta Administrazioan, salbuespenak salbu, hizkuntza ofizialean. Euskal Administrazioan, bi hizkuntza ofizial daukagu; bata edo bestea erabili, hizkuntza ez da produktua izango, bitartekoa baizik. Lan-hizkuntzaren ezaugarri horrek izugarritzko eragina izango du lan-esparru barruko hizkuntzaren erabileran. Ikuspegi horretatik, Administrazioak eskaintzen duen produktua (lana edo zerbitzua) herritarrak eskatzen duen kalitatearekin emateko hizkuntza ofizialetariko bat oztopo bihurtzen bada, bazter utziko da hizkuntza-bitarteko hori eta orain arte ohikoa izan den hizkuntza erabiliko da.

Jokabide horrek lehentasun batzuk markatzen ditu, hau da, “zer” da garrantzitsuena eta ez “nola”.

Administrazioak herritarrei zuzentzen dizkie bere lan eta zerbitzuak, beraz, adi egon behar du eta kontuan hartu herritarrek zer eta nola bideratzen dituzten beren eskariak. Herritarrek “nola” “zer” mailan jarriko balu, hau da, gizarte presioa handia izango balitz euskara administrazioarekiko harremanetarako hizkuntza normalizatua izan arte, aldagai horrek eragin zuzen-zuzena izango luke euskara lan-hizkuntza normala bihurtzeko. Baina, zoritxarrez, hori ez da gertatzen. Arlo horretan, gizarte-presioa ahula da, GUFEk diharduen esparruan behintzat. Dena den, gure helburuetarako aldagai eraginkorra denez, Administrazioak gizarte-presioa sustatzen saiatu behar du.

### **2.2.2. EGITASMOAREN ERAGIN-ESPARRUA**

Egitasmo honek Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko administrazio-atal eta langile guztiak hartzen ditu barruan.

### **2.2.3. EGITASMOAREN INDARRALDIA**

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko Gobernu Batzordeak onartzen duen egunaren biharamunean jarriko da egitasmoa hau indarrean, eta hala iraungo du VI. plangintzaldirako egitasmoa onartu arte.

### **2.2.4. EGITASMOAREN HELBURU NAGUSIAK**

*Herri administrazioetan Euskararen erabilera normalizatzeko planen helburu nagusia da euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izan dadin neurri eraginkorrek hartzea eta burutzea.*

Helburu hau lortzeko ez gara ezerezetik abiatzen, hau bosgarren plangintzaldia baita. Aurreko lau aldietan aurrerapauso esanguratsuak eta erabakigarriak eman dira. Izan ere, egun esan dezakegu erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko moduan gaudela, zerbitzu hizkuntzari dagokionez, euskararen erabilera normalizatua da eta. Horrenbestez, hurrengo plangintzaldirako erakunde honek egin beharko dituen ahaleginak, batez ere, euskararen erabilera lan hizkuntza gisa areagotzea izan behar da.

Baina, normalean gaztelaniaz lan egiten duen administrazioa dela kontuan hartuta, nola lor daiteke euskara, era progresiboan, lan hizkuntza ere izatea?

Galdera honen erantzuna tartean dauden erakunde eta kolektiboen borondatean eta jarreretan aurkitu behar da, partekatutako ahaleginaren bitartez.

Lan hizkuntza izateko euskararen erabileraren aldeko jarrerak, nekez lortzen dira inposizio hierarkiko edo arautuaren bitartez. Jokabide horiek gehiago erraztu eta bultzatzen dira testuinguru egokiagoa sortuz. Beraz, Administrazioako langileak euskaraz lan egitera erakarri behar ditugu, ez derrigortu. Horretarako, motibazioa lantzeaz gain, lan-baldintzak egokiak izan behar dira eta bitartekoak ugariak, inondik ere euskaraz lan egitea gaztelaniaz lan egitea baino neketsuagoa suerta ez dadin.

### **Erakundearen borondatea**

Dagoeneko 25 bat urte pasatu dira GUFEn langileek euskara ikasteko lehenengo plana egin zuenetik. Urte horietan, guztietan, hainbat eta hainbat langilek ikasi dute euskara, aurreko plangintzaldiaren balantzeari buruzko atalean ikus daitekeenez; kasu askotan,

gainera, hizkuntzarekiko konpromisoak ekarri du lanean euskara gero eta gehiago erabiltzea.

Hizkuntzarekiko konpromisoa instituzionala ere bada, eta horrela adierazi zuen ahaldun nagusiak bere izendapen egunean egin zuen hitzaldian: “Euskeragaz, bera egongo delako Bizkaiko Foru Aldundiaren barruan, hizkuntza normalizazioaren bitartez, eta bera izango da guztiok erabiltzen dugun hizkuntza gure Erakundearen arlo guztietan”.

## **2.2.5. EGITASMOAREN HELBURUAK LORTZEKO EGITURA ETA BIDEAK**

Herri-administrazioak bere funtzioak betetzeko administrazio-ataletan oinarritutako egitura hartzen du. Administrazio-atalek izaera desberdina dute betetzen dituzten funtzioen arabera. Horrela, izaera kontuan hartuta administrazio-atalen hurrengo sailkapena egin daiteke:

- jendaurrekoa administrazio-atalak
- gizarte izaerako administrazio-atalak
- administrazio-atal orokorrak
- zeharkako administrazio-atalak
- administrazio-atal bereziak

### **2.2.5.1. Erabilera sustatzeko Mikroplanak (EraMi)**

Administrazioan epe ertainean elebitasun orekatu batera iristea da Euskaren Erabilera Normalizatzeko Planen helburu nagusia. Egoera horretara iristeko, Administrazioan eraldaketa bat gertatu behar da. Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen eraldaketa hori era planifikatuan egin nahi da. EraMi bat ezarrita daukaten administrazio-atalak izango dira planifikazio horren eragin-guneak.

Gorago aipatu dugunez, Administrazioan lanean ari den belaunaldiak ikasketak, gehienbat, gaztelaniaz egin ditu eta ibilbide profesionala ere gaztelaniaz garatu du; beraz, hizkuntza ohiturak ondo errotuta daude lan-esparruan. Dena den, azken boladan, sumatzen ari gara langileen artean euskararen aldeko joerak indartzen ari direla. Horretarako egon daitezkeen arrazoiaren artean, besteak beste, honako bi nagusi hauek daude: batetik, eskolan eta unibertsitatean euskarazko ereduetan ikasi duten langile berriak GUFEra sartu izana, eta, bestetik, azken urtean, GUFEn barruan

euskara maila bat lortu dutenentzat garatu diren “erabilera planen” bidez, euskaraz lan egin ahal izateko burutu den hizkuntza-trebakuntza berezitu.

Ikusi dugunez, Administrazioaren egituraren oinarria administrazio-atala da. Administrazio-atalak elebidunak izan daitezke, alegia, beren zereginak bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan betetzeko gai direnean. Teorian, horrela bada ere praktikan ez da beti horrela gertatzen, besteak beste, administrazio-atal bat elebidun izendatzeko kontuan hartzen dugun ezaugarria bere izaera delako eta ez hizkuntza-gaitasuna.

Bestalde, nahiz eta hizkuntza-gaitasuna izan, atal elebidun izendatzeak ez dakar, berez, administrazio-atal horren lan-hizkuntza euskara izatea. Hori bakarrik gertatuko da baldin eta atal horretako kideek hala izateko borondatea agertu badute.

Bi bide aurreikusten dugu EraMi bat ezartzeko:

- a) Administrazio-atal batek, ataleko zuzendariaren bidez eta departamendu edo dibisioaren burutzaren oniritziarekin bere nahia adieraztea Euskara Arloari eta honek Hizkuntz Normalizazio Atalari.
- b) Hizkuntz Normalizazio Atalak, zenbait baldintza eta ezaugarri aztertu ondoren, egoera egokia dela ikusirik, atalari proposamena aurkeztea. Bigarren honetan, beharrezko da, proposamena jaso eta aztertu ondoren atalak onartzea; hau da, ataleko kide guztien borondatea eta adostasuna izango da oinarria EraMi bat ezartzeko. Ez da aurreikusten, salbuespenak salbu, Administrazioak bere kabuz Erabilerako Mikroplanik ezartzea.

EraMi bat ezarri den administrazio-ataletan honako hiru ezaugarri azpimarratuko genituzke:

- Administrazio-atala osotzen duten kide guztiek behar adineko euskara maila izatea; lanpostuaren HE egiaztatuta izatea, gutxienez. Administrazio-atal batean EraMi bat ezartzearen ondorioz gerta daiteke lanpostu batzuei hizkuntza eskakizuna aldatu behar izatea, ataleko kideek bete behar dituzten funtzio eta zereginak euskaraz erosotasunez egin ahal izateko. Esandakoa bermatzeko, unitate horretako lanpostu guztiei 3HE esleitu ahal izango zaie.
- Administrazio-atala osotzen duten kide guztien adostasuna.
- Administrazio-atalean euskara lan-hizkuntza bihurtzeko ikerketa-interbentzio bat burutzea.

Borondatea eta adostasuna beharrezkoak badira ere, oro har, ez dira nahikoak atalean jokabide elebidun batean abiarazteko. Gorago aipatu dugu Administrazioan lanean ari den belaunaldiak bere ikasketak, gehienbat, gaztelaniaz egin dituela eta ibilbide profesionala ere gaztelaniaz garatu duela. Beraz, hizkuntza ohiturak ondo errotuta daude lan-esparruan. Egoera horretan eragiteko ikerketa-interbentzioak diseinatu eta egikaritu behar ditugu.

### **Ikerketa-interbentzioen metodologia**

Plan honetan, EraMi bat ezarrita daukaten administrazio-ataletan eraldaketa burutzeko proposatzen diren ikerketa-interbentzioak EPEsA metodologian (Euskara Planetan Eskuartze Analitikorako Metodologia) oinarrituta daude. EPEsA metodologia, euskararen normalizaziorako planak egikaritzen ari diren organizazioetan esku-hartze analitikoak diseinatzeko eta burutzeko eredu metodologikoa berria da, Eralan ikerkuntza/ekintza proiektuan egokitu eta aplikatu den diseinu metodologikoan oinarrituz garatu dena.

#### **2.2.5.3. Euskaraz lan egin ahal izateko baliabideak**

Euskara Euskal Administrazioan hizkuntza ofiziala den arren, GUFEk, konkretuki, nekez bete ditzake bere zeregin eta funtzioak euskaraz zenbait baliabideez, itzulpena adibidez, erabili gabe.

Atal batean EraMi bat ezarri delako euskara lan-hizkuntzatzat duen arren, espedienteen izapidetzea ez da beti atalean hasi eta bukatzen, nolabaiteko zirkuitu administratiboa jarraitu behar du. Zirkuitu administratibo osoan izapidetzea euskaraz egin ahal dela bermatzeko beste baliabide batzuk behar dira, hau da, itzulpena eta trebatzaileak. Hortaz, euskaraz lan egin nahi dutenen eskubidea, gaztelaniaz egiten dutenen baldintza berdinetan bermatu nahi badugu, giza baliabide zein baliabide materialez hornitu behar dugu gure lan-jarduera.

Horrela, bada:

1. GUFeko langileek aukeratu ahal izango dute zein hizkuntzatan burutu nahi duten beren lana. Aukera euskararen alde egiten badute espedienteen izapidetzea eta gainerako harreman idatziak euskara hutsean bideratuko dituzte.
2. Hizkuntza-aukeraketa dela eta, espediente horiek burutu behar duten administrazio-prozeduraren edozein unetan aurrera egitea galarazten duen oztoporik sortuz gero, hizkuntza-arazoa sortu den tokian edota sortu zaionari arduratu beharko da soluziobideak topatzen, baina inoiz ez da atzera botako itzulita bidal dezaten.
3. Bigarren puntuan azaldutako egoera gainditu ahal izateko, besteak beste, honako giza baliabide hauek eskuratu ahal izango dira: Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntz Teknologia Ataleko itzultzaileen zerbitzua eta Hizkuntz Normalizazio Ataleko trebatzaileen jarduera.

Horrez gain, euskara lan-hizkuntza gisa erabiltzearen aldeko aukera egiten dutenek bestelako baliabide materialak ere izango dituzte eskuragarri, bereziki, informatika arloan.

1. Hemendik aurrera, EraMi bat ezarrita dagoen administrazio-atalean erabiltzeko, beren-beregi sortuko diren programa eta aplikazio informatikoetan, euskarazko bertsioak izango du lehentasuna. Gainerako ataletan erabiltzeko sortuko diren tresna informatikoak bi hizkuntzetan lan egin ahal izateko prestatuta egon behar dira.
2. EraMi bat ezarrita dagoen administrazio-ataletan gaur egun erabiltzen diren programa informatikoak euskaraz erabiltzeko prestatu ez badaude, eperik laburrenean egokitu eta prestatu beharko dira euskaraz erabili ahal izateko.
3. Programa informatiko komertzial edo orokorrak direnean, euskarazko bertsiorik eginik badago, bertsio horrek izango du lehentasuna EraMi bat ezarrita dagoen ataletako lanpostuetan jartzeko. Programa horiek jarri behar diren gainerako lanpostuetako titularrei ere eskainiko zaie euskarazko bertsioa.

Bestalde, baliabideen artean ezin dugu ahaztu garrantzi handiko bat: prestakuntzarena.

1. Hizkuntza-prestakuntza. EraMi bat ezarrita dagoen administrazio-ataletan hizkuntza-prestakuntza berezia emango da ikerketa-interbentzioen bitartez. Gainerako langile guztiei ere zabaltzen zaie hizkuntza-trebakuntza bidea "Erabilera Planen" bidez (ikus 5. atala).
2. Lanposturako prestakuntza. Trebakuntzaren arduradunak prestakuntza mota honetan, urtero, euskeraz egin ahal izango diren ikastaroen ehuneko gehitzen ahalegindu beharko du.  
EraMi bat ezarrita dagoen zentroetan lehentasun osoa izango du gaiak euskaraz emateak. Beraz, trebakuntzaren arduradunak saiatu beharko du gai horiek, gehienbat, euskaraz eman ahal izateko bideak jartzen.
3. Garapen pertsonalerako prestakuntza. Prestakuntza Plana egiterakoan, kontuan hartuko da GUFeko langileek hizkuntza-gaitasunean izan duten bilakaera. Euskaraz egin ahal izango diren ikastaroen eskaintza bilakaera horren araberakoa izango da.



### **2.3. MOTIBAZIOA ETA GIZARTE PRESIOA SUSTATU BEHARRA**

Administrazioak, erakundearen barruan erabilera sustatuz, euskararen normalizazioan ahalegin handiak egin baditu ere, desoreka handia sumatzen da, oraindik ere, hizkuntzen artean. Izan ere, Administrazioan gaztelaniaren erabilera ia erabatekoa da, soziolinguistikoki oso eskualde euskaldunetan ez bada, behintzat.

Elebitasun orekatu baterantz abiatu nahi badugu, Administrazioak bi aldagai, bereziki, landu behar ditu Hizkuntza Normalizazio Prozesuetan: Erakundeko pertsonalaren motibazioa eta gizarte presioa.

#### **2.3.1 Erakundeko pertsonalaren motibazioa sustatu**

Honakoa hau da EraLan proiektuak motibazio aldagaiari buruz ematen duen definizioa: "Norbanakoak nahiz taldeak euskararekiko, orokorrean, eta egon daitezkeen euskararen erabilera sustatzeko planekiko, konkretuki, agertzen duten interesa eta aldeko jokabidea (faktore kontziente edo inkontzienteak)".

Definizio horretatik ondorioztatzen dugu euskararen alde motibatzeak jokabidea aldatuko lukeela eta langileek aldeko jarrera hartuko luketela. Gure kasuan, euskara administrazio-ataletako lan-hizkuntza bihurtzeko ahaleginak eginez.

Bestalde, Administrazioan ari garenez, EraMi bat ezarrita daukaten administrazio-atalek zerbitzu-kalitate handiagoa ematen dute gainerakoek baino; izan ere, administrazio-prozeduran, kostuan zein denboran aurrezteak eta aurreratzea dakarte.

Egoera horretan, Administrazioak saritu behar ditu jokabide-aldaketa horiek.

##### **2.3.1.1 Erabilerarako Mikroplanetako partaideen errekonozimendua.**

Euskara planak dituzten organizazioetan euskararen erabileran eragin zuzena duten aldagaien artean, "Erabiltzeko ahaleginaren errekonozimendua" aldagaia da EraLan proiektuak jasotzen duen garrantzitsuetariko bat.

#### **2.3.2 Gizarte presioa sustatu**

Gizarte presioak Administrazioarentzat euskara erabiltzeko exijentzia dakarren neurrian, berebiziko eragina izango du Administrazioaren hizkuntza normalizazioan. Administrazioak bere egiturak egokitu beharko ditu gizarte presio horri erantzuteko, eta erronka gisa planteatzen zaion eskakizun horri erantzun egokia emateko gai den neurrian, herritarren gogobetetze maila handia izango da. Egoera hori gertatzen denean, exijentziak sortzen duen tentsioa apaldu egingo da eta Administrazioaren eta herritarren arteko feedbackerako harremanetan hizkuntzen erabilera lasaia eta normalizatua izango da.

Baina, gizarte presioak lotura handia du inguruaren egoera soziolinguistikoarekin eta, zoritxarrez, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak eragina duen eremuan dagoen egoera soziolinguistikoak oso gizarte presio ahula eragiten du. Beraz, hizkuntza normalizaziorako bide hau guztiz eraginkorra denez, GUFEn gizarte presioa sustatzen ahalegindu behar da.

### **2.3.2.1 Gizarte presioa sustatzeko zenbait iradokizun**

Gizarte presioa sustatzeko orduan eraginkorrak izan nahi badugu, honako hauek kontuan hartu behar ditugu:

- GUFeko bezeroak zentro eta etxebizitzetako erabiltzaileak eta familiak dira.
- GUFEn barneratu behar du, berari dagokiola bere bezeriaren artean gizarte presioa sustatzea eta zeregin hori ez dela hizkuntza arloan ari diren arduradun, teknikari eta bestelakoen gaia.
- Edozein plan, proiektu, laguntza, eta abar ezarri nahi denean, hasiera-hasieratik kontuan hartu behar da hizkuntza irizpidea.

## **2.4. HIZKUNTZA NORMALIZAZIORAKO GUFEN BATZORDEA**

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen hizkuntza normalizatzeko planaren jarraipen eta koordinaziorako organoa izango da.

Partaideak:

-Batzordeburua: GUFeko kudeatzailea

-Batzordeburuordea: Pertsonen zuzendaritzarako saileko burua.

-Batzordekideak:

-Hizkuntz Normalizazio Ataleko burua

-Hizkuntz Normalizazioaren arduraduna.

-Zerbitzu Soziosanitarioen eta Adinekoentzako Zerbitzuen Dibisioko burua

-Desgaitasuna duten Pertsonentzako eta Gizarteratzeko Zerbitzuen Dibisioko burua

- Ume eta Nerabeentzako Zerbitzuen Dibisioko burua

-Prestakuntzaren arduraduna

-Sindikatuetakako ordezkari bat

-Idazkaria: Pertsonen zuzendaritzarako saileko teknikari bat, hitzarekin

baina botorik gabe.

Hizkuntz Normalizaziorako Batzorde Nagusia urtero behin bilduko da, gutxienez, eta, besteak beste, honako eginkizun hauek izango ditu:

- GUFeko hizkuntza normalizazioaren egoera aztertzea eta azterketa hori oinarri hartuta, proposamen berriak egitea.
- Plana aurrera ateratzeko sor daitezkeen eragozpenak gainditzen laguntzea.
- Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko arauak zentroetan betetzen direla zaintzea eta berriak proposatzea.
- Plana kudeatzea, jarraitzea eta ebaluatzea.
- Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen euskararen erabilerak gora egiteko neurriak hartzea.

### **3. GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEKO ADMINISTRAZIO-ATAL ELEBIDUNAK**

86/1997 Dekretuaren 15. artikuluan xedaturikoaren arabera, administrazio-atal elebidunak eta, bidezkoa bada, euskaraz dihardutenak izango dira Euskal Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko planak finkatzeko oinarri eta euskarria. Ildo horretatik, unitate horiek izango dira euskararen erabileraren normalizazioa planifikatzeko sistemaren muin eta ardatza.

#### **3.1. ADMINISTRAZIO-ATAL ELEBIDUNEN DEFINIZIOA ETA SAILKAPENA**

Administrazio-atal elebidunak dira Euskal Administrazioako bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan beren zereginak betetzen dituztenak.

86/1997 Dekretuaren 17. artikulua xedatzen duenaren arabera, Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %25etik %45era bitartekoa denean, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta bere erakunde autonomidunen kasua, hain zuzen ere, jendaurreko administrazio atal guztiak, gazteriarekin harremana dutenak eta gizarte mailakoak elebiduntzat hartu behar dira.

Horrela egin zuen Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak 1999an onartu zuen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean. Ebazpen honek salbuespen batzuk izan zituen. Adibidez, izaera orokorreko zenbait administrazio atal elebidun izendatu ziren, zegokion sailaren eskaera bera kontuan hartuz, elebiduna izan behar zuela ulertzen baitzuten, bertan ematen ziren baldintzak zirela medio. Bestalde, ez ziren elebiduntzat hartu, ikuspegi soziolinguistikoa aintzat harturik, ingurune erdaldunean zeuden unitateak, nahiz eta unitatearen izaeragatik elebiduntzat hartu beharrekoak izan.

2006an, GUFEk onetsi zuen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan berrian, 1999ko Planean elebidun izendatutakoei gehitu zitzaien, ordura arte izaera orokorreko gisa hartuak izan baina GUFeko langile guztiei edo sail barruko guztiei zuzendutako zerbitzu horizontaleko administrazio-atalak. Baita ere, izaera orokorreko administrazio-atalak, beti ere, unitatea osotzen zuten langile guztiek zegokien HE egiaztatu zutenean.

**2013-2017 Plangintzaldi berri honetarako:**

--Salbuetsita zeuden unitateak, gizarte izaera kontuan izanda elebidunak izan behar zutenak eta, batez ere, alde erdaldunetan egotearren izendapen hori ematen ez zitzaienak, salbuespenik gabe geratuko dira.

--Administrazio atal elebidun izendapena hartuko dute erabiltzaileen perfila adingabeko atzerritarra izatetik adingabea izatera aldatu dutenak.

Kontuan harturik, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen egitura organikoaren araudia eta lanpostuen zerrenda, ondoko laukian jasotzen ditugu, gaur egun, GUFEn antolaketa-egitura osotzen duten administrazio-atal guztiak, izaeraren eta izenaren arabera.

### 3.2. ADMINISTRAZIO-ATALAK ETA BEREN IZAERA

KODEA	IZENA	IZAERA	ELEBIDUNA	
<b>1</b>	<b>GERENTZIA</b>	<b>Orokorra</b>	<b>EZ</b>	
<b>11</b>	<b>LAGUNTZA ZERBITZUEN ZUZENDARITZA</b>	<b>Orokorra</b>	<b>EZ</b>	
111	ZERB.SOZIOSANITARIOEN ETA ADINEKOENTZAKO ZERBITZUEN DIBISIOA	Gizarte-izaera	BAI	
11101	IKERKETA ETA LAGUNTZARAKO UNITATEA	Gizarte-izaera	BAI	
11102	LEIOA LAGUNTZA ZENTROA	Gizarte-izaera	BAI	
11103	BIRJINETXE LAGUNTZA ZENTROA	Gizarte-izaera	BAI	
11104	GALLARTA LAGUNTZA ZENTROA	Gizarte-izaera	BAI	
11105	ELORRIO LAGUNTZA ZENTROA	Gizarte-izaera	BAI	
11106	SANTURTZIKO ITSASTARREN ETXEA	Gizarte-izaera	BAI	
11107	ONDARROAKO ITSASTARREN ETXEA	Gizarte-izaera	BAI	
<b>112</b>	<b>DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ETA GIZARTERATZEKO ZERBITZUEN DIBISIOA</b>	<b>Gizarte-izaera</b>	<b>BAI</b>	
11201	IKERKETA ETA LAGUNTZARAKO UNITATEA	Gizarte-izaera	BAI	
11202	GIZATEK LAGUNTZA PRODUKTUEN ZENTROA	Gizarte-izaera	BAI	
11204	LUSA LAGUNTZA ZENTROA	Gizarte-izaera	BAI	
11205	URDUÑA LAGUNTZA ZENTROA	Gizarte-izaera	BAI	
11207	ZUBIETE LAGUNTZA ZENTROA	Gizarte-izaera	BAI	
11208	ZUMELEGI LAGUNTZA ZENTROA	Gizarte-izaera	BAI	
11209	EGUNEKO ZENTROAK	Gizarte-izaera	BAI	
11210	ERREKALDE LAGUNTZA ZENTROA	Gizarte-izaera	BAI	
11211	LOIU-UDALOSTE LAGUNTZA ZENTROA	Gizarte-izaera	BAI	
<b>113</b>	<b>UME ETA NERABEENTZAKO ZERBITZUEN DIBISIOA</b>	<b>Gizarte-izaera</b>	<b>BAI</b>	
1131	IKERKETA ETA LAGUNTZARAKO UNITATEA	Gizarte-izaera	BAI	
1132	EGOITZA HARRERAREN UNITATEA	Gizarte-izaera	BAI	
1133	ETXEBIZITZEN SAREA	Gizarte-izaera	BAI	
	Basauri E	Gizarte-izaera	BAI	
	Fueros E	Gizarte-izaera	BAI	
	Mungia E	Gizarte-izaera	BAI	
	San Adrian E	Gizarte-izaera	BAI	
	Txurdinaga E	Gizarte-izaera	BAI	
	Santurtzi E	Gizarte-izaera	BAI	
	Portugalete E	Gizarte-izaera	BAI	
	Murrieta E	Gizarte-izaera	BAI	
	Dolaretxe E	Gizarte-izaera	BAI	
	Mina del Morro E	Gizarte-izaera	BAI	
	Zabálburu E	Gizarte-izaera	BAI	
	Etxebizitza semiautonomoak	Gizarte-izaera	BAI	
1134	ARGILEKU-LARRASOLO	Gizarte-izaera	BAI	
<b>12</b>	<b>PERTSONAK ZUZENTZEKO DEPARTAMENDUA</b>	<b>Gizarte-izaera</b>	<b>BAI</b>	
121	UNITATE TEKNIKOA	Gizarte-izaera	BAI	
122	AUKERAKETA ETA HORNIKUNTZA ARLOA	Gizarte-izaera	BAI	
123	KUDEAKETA ADMINISTRATIBOAREN ARLOA	Gizarte-izaera	BAI	
124	TREBAKUNTZA ETA EUSKARA ARLOA	Gizarte-izaera	BAI	
125	LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ARLOA	Gizarte-izaera	BAI	
<b>13</b>	<b>ZERBITZU OROKORREN DEPARTAMENDUA</b>	<b>Gizarte-izaera</b>	<b>BAI</b>	
131	LAGUNTZA ZERBITZUEN ETA ONDAREAREN ARLOA	Gizarte-izaera	BAI	

132	KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ARLOA	Orokorra	BAI	
133	ZERBITZU TEKNIKOEN ARLOA	Gizarte-izaera	BAI	
<b>14</b>	<b>ANTOLAKETA ETA HOBEKUNTZARAKO DEPARTAMENDUA</b>	<b>Gizarte-izaera</b>	<b>BAI</b>	
141	ANTOLAKETA ARLOA	Gizarte-izaera	BAI	
142	KOMUNIKAZIO ARLOA	Gizarte-izaera	BAI	
143	BERRIKUNTZA ETA HOBEKUNTZA BIDERATZEKO ARLOA	Gizarte-izaera	BAI	
144	ERABILTZAILEARI LAGUNTZEKO ARLOA	Gizarte-izaera	BAI	
<b>15</b>	<b>LEGE AHOLKULARITZA</b>	<b>Orokorra</b>	<b>EZ</b>	

Jarraian, GUFEn lau orokorra ikus daiteke, bere administrazio-unitateei dagokienez.

Organikoa	Administrazio atalak	Unitate elebidunak	Unitate elebidunen %
Gerentzia	1		
Laguntza zerbitzuen zuzendaritza	1		
Zerbitzu soziosanitarioen eta adinekoentzako zerbitzuen dibisioa	7	7	100
Desgaitasuna duten pertsonentzako eta gizarteratzeko zerbitzuen dibisioa	9	9	100
Ume eta nerabeentzako zerbitzuen dibisioa	4	4	100
Pertsonak zuzentzeko departamendua	5	5	100
Zerbitzu Orokorren departamendua	3	3	100
Antolaketa eta hobekuntzarako departamendua	4	4	100
Lege aholkularitza	1		
<b>GUFekoak guztira</b>	<b>35</b>	<b>32</b>	<b>94,11</b>

Aurreko laukia IV. Plangintzarenarekin alderatuz,

	Atal Elebidunak guztira				Atal Elebidunen bilakaera	
	IV Plangintzaldia	%	V Plangintzaldia	%	Atalak	Ehunekoetan
<b>IFAS osoa</b>	<b>32</b>	<b>74,41</b>	<b>32</b>	<b>94,11</b>		<b>+19,7</b>

Aurreko plangiantzaldiarekin alderatuta, administrazio-atal elebidunen ehunekoa 19,7 hazi da, eta guztira atal elebidunen ehunekoa 94,28koa da.

## 4. HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK ALDATZEKO eta DERRIGORTASUN-DATA BERRIAK ESLEITZEKO PROPOSAMENA

### 4.1.. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNEN ALDAKETA

Ondoko laukian biltzen ditugu hizkuntza-eskakizunen aldaketa izango duten lanpostuak.

“4194 Bizikidetzaren Unitate txikiko sukaldari/zerbitzaria” lanpostuko hiru dotazioei egindako aldaketak zeregin berberak dituzten lanpostuen hizkuntza eskakizuna bateratze aldera egin dira. Hizkuntza eskakizuna lanpostuari lotuta dago, ondorioz, zeregin eta eginkizun berberak dituzten lanpostuek hizkuntza eskakizun bera izan behar dute. Sukaldari/ Zerbitzariak, kode desberdinak izan arren, zeregin berak dituzte eta 1.HE dute. Hortaz 1.HE jarri behar zaie honako laukian ageri diren hiru dotazioei:

LANPOSTUA KODEA	IZENA	HE	HE ALDATUA
4194	Bizikidetzaren Unitate txikiko sukaldari/zerbitzaria	2	1

Mungiako Etxebizitzaren EraMia dago abian, hau da, euskara lan eta zerbitzu hizkuntza da bertan. Etxebizitzako sukaldari/zerbitzari lanpostu biek 1. HE dute ezarrita. Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAeko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizazio prozesua arautzen duenak, 13. artikuluan eta Europako Erreferentzia Marko Bateratuak 4. eta 5 artikuluetan xedatutakoaren arabera 1. HE izateak ez du bermatzen euskara zerbitzu hizkuntza gisa erabiltzeko gaitasuna. Beraz, salbuespen gisa Mungiako Etxebizitzako lanpostu horiei hizkuntza eskakizuna aldatu egiten zaie eta honakoa izango da:

LANPOSTUA KODEA	IZENA	HE	HE ALDATUA
4092-001	Etxebizitzako sukaldari/zerbitzari	1	2
4092-002	Etxebizitzako sukaldari/zerbitzari	1	2

## **4.2. DERRIGORTASUN-DATA BERRIAK ESLEITZEKO PROPOSAMENA**

### **4.2.1. DERRIGORTASUN DATA BERRIAK ESLEITZEKO IRIZPIDEAK**

Hona hemen irizpideak:

**A) Eutsi egingo zaio aurreko plangintzaldiko irizpide orokorrari, elebiduntzat harturiko administrazio unitateetako lanpostu guztiei derrigortasun data esleitzeko irizpideari, alegia.** Beraz, ondoko hauei esleituko zaie derrigortasun data:

- administrazio-atal elebidunetako lanpostu hutsei,
- lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatu duten titularren administrazio-atal elebidunetako dotazioei
- hurrengo plangintzaldian 61tik (erretiro aurreratua/uko egite sustatua) gora duten titularren administrazio-atal elebidunetako dotazioei.

**B) Derrigortasun data igarota eta Hizkuntza eskakizuna aldatu zaien dotazioei beste derrigortasun data bat ezarriko zaie V Plangintzaldiaren barruan**

**C) Ez zaie derrigortasun datarik esleituko:**

1. Hutsik geratu ondoren iraungitzeakoak diren lanpostuei.
2. Era berean, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren irizpideari jarraituz, ez zaie derrigortasun datarik esleituko administrazio unitate elebidunetako lanpostuei, baldin eta dagozkien egitekoak eskulanak edo kontserbazio nahiz mantentze-lanak badira.



#### 4.2.2. DERRIGORTASUN-DATA BERRIAK GUFEKO ADMINISTRAZIO-UNITATE ELEBIDUETAN

-Mungiako Etxebizitzako bi lanposturi derrigortasun data ezarri zaie; lanpostu horiei hizkuntza eskakizuna aldatu egin zaie etxebizitza horretan EraMia abian jarri izanagatik. Data hori jartzeko derrigortasun data berriak ezartzeko erabiltzen diren irizpideetako B) irizpidea izan da kontuan eta 86/1997 Dekretuaren 22. artikulua.

LANPOSTUA KODEA	IZENA	HE	DT
4092-001	Etxebizitzako sukaldari/zerbitzari	2	2014/12/31
4092-002	Etxebizitzako sukaldari/zerbitzari	2	2014/12/31

-Derrigortasun data berriak ezartzeko erabiltzen diren irizpideetako A) irizpidea kontuan hartuta, V. plangintzaldirako esleipen proposamena hurrengoa da:

ORGANIKOA	LP	DOT .	IZENA	HE (DOT)	DER. DATA.
11103	4178	042	BIRJINETXE L.ZENTROKO OSASUN LAGUNTZAILEA AUXILIAR SANITARIO/A CENTRO A. BIRJINETXE	2	31/12/2017
11102	4181	061	LEIOA L.ZENTROKO OSASUN LAGUNTZAILEA AUXILIAR SANITARIO/A CENTRO A. LEIOA	2	23/12/2013
11102	4181	105	LEIOA L.ZENTROKO OSASUN LAGUNTZAILEA AUXILIAR SANITARIO/A CENTRO A. LEIOA	2	23/12/2013
11102	4181	106	LEIOA L.ZENTROKO OSASUN LAGUNTZAILEA AUXILIAR SANITARIO/A CENTRO A. LEIOA	2	23/12/2013
11102	5126	119	TXANDAKAKO ZERBITZARI-GARBITZAILEA CAMARERO/A LIMPIADOR/A CON TURNICIDAD	1	23/12/2013
11102	5126	145	TXANDAKAKO ZERBITZARI-GARBITZAILEA CAMARERO/A LIMPIADOR/A CON TURNICIDAD	1	23/12/2013
11104	4176	006	GALLARTA.ZENTROKO OSASUN LAGUNTZAILEA AUXILIAR SANITARIO/A CENTRO A. GALLARTA	2	23/12/2013
11104	4176	009	GALLARTA L.ZENTROKO OSASUN LAGUNTZAILEA AUXILIAR SANITARIO/A CENTRO A. GALLARTA	2	23/12/2013
11104	4176	011	GALLARTA L.ZENTROKO OSASUN LAGUNTZAILEA AUXILIAR SANITARIO/A CENTRO A. GALLARTA	2	23/12/2013
11104	4176	014	GALLARTA L.ZENTROKO OSASUN LAGUNTZAILEA AUXILIAR SANITARIO/A CENTRO A. GALLARTA	2	23/12/2013
11104	4176	020	GALLARTA L.ZENTROKO OSASUN LAGUNTZAILEA AUXILIAR SANITARIO/A CENTRO A. GALLARTA	2	23/12/2013
11104	5126	018	TXANDAKAKO ZERBITZARI-GARBITZAILEA CAMARERO/A LIMPIADOR/A CON TURNICIDAD	1	23/12/2013
11104	5126	023	TXANDAKAKO ZERBITZARI-GARBITZAILEA CAMARERO/A LIMPIADOR/A CON TURNICIDAD	1	23/12/2013
11104	5126	042	TXANDAKAKO ZERBITZARI-GARBITZAILEA CAMARERO/A LIMPIADOR/A CON TURNICIDAD	1	23/12/2013
11104	5126	054	TXANDAKAKO ZERBITZARI-GARBITZAILEA CAMARERO/A LIMPIADOR/A CON TURNICIDAD	1	23/12/2013
11104	5126	065	TXANDAKAKO ZERBITZARI-GARBITZAILEA CAMARERO/A LIMPIADOR/A CON TURNICIDAD	1	23/12/2013

11104	5126	100	TXANDAKAKO ZERBITZARI-GARBITZAILEA CAMARERO/A LIMPIADOR/A CON TURNICIDAD	1	23/12/2013
11104	5126	112	TXANDAKAKO ZERBITZARI-GARBITZAILEA CAMARERO/A LIMPIADOR/A CON TURNICIDAD	1	23/12/2013
11105	4175	012	ELORRIO L.ZENTROKO OSASUN LAGUNTZAILEA AUXILIAR SANITARIO/A CENTRO A. ELORRIO	2	23/12/2013
11105	4175	014	ELORRIO L.ZENTROKO OSASUN LAGUNTZAILEA AUXILIAR SANITARIO/A CENTRO A. ELORRIO	2	23/12/2013
11105	5126	068	TXANDAKAKO ZERBITZARI-GARBITZAILEA CAMARERO/A LIMPIADOR/A CON TURNICIDAD	1	23/12/2013
11105	5126	140	TXANDAKAKO ZERBITZARI-GARBITZAILEA CAMARERO/A LIMPIADOR/A CON TURNICIDAD	1	23/12/2013
11106	5098	001	ITSASTARREN ETXEKO MANDATARIA TXANDAKAKOA ORDENANZA HOSPEDERIA CON TURNOS	2	23/12/2013
11204	3157	022	GOI MAILAKO ETA TXANDAKAKO GIZARTERATZE TEKNIKARIA TECNICO/A SUPERIOR DE INTEGRACION SOCIAL CON TURNICIDAD	3	23/12/2013
11210	4196	011	ERREKALDE L.ZENTROKO OSASUN LAGUNTZAILEA AUXILIAR SANITARIO/A CENTRO A. ERREKALDE	2	23/12/2013
11210	5126	137	TXANDAKAKO ZERBITZARI-GARBITZAILEA CAMARERO/A LIMPIADOR/A CON TURNICIDAD	1	23/12/2013
1133	2002	018	ZENTROETAKO ADINGABEEN HEZITZAILEA EDUCADOR/A DE MENORES CENTROS	3	23/12/2013
1133	2002	005	ZENTROETAKO ADINGABEEN HEZITZAILEA EDUCADOR/A DE MENORES CENTROS	3	23/12/2013
11102	2056	003	LEIOA L.ZENTROKO GAINBEGIRALEA (TXANDAKAKOA) SUPERVISOR/A CENTRO A LEIOA CON TURNICIDAD	3	31/12/2017
11102	2168	020	LEIOA L.ZENTROKO GAINBEGIRALEA. SOLAIRUKO ERIZAINA ENFERMERO/A CENTRO A LEIOA RESTO PLANTAS	3	31/12/2017
11102	4181	018	LEIOA L.ZENTROKO OSASUN LAGUNTZAILEA AUXILIAR SANITARIO/A CENTRO A. LEIOA	2	31/12/2017
11102	4181	010	LEIOA L.ZENTROKO OSASUN LAGUNTZAILEA AUXILIAR SANITARIO/A CENTRO A. LEIOA	2	31/12/2017
11102	4181	020	LEIOA L.ZENTROKO OSASUN LAGUNTZAILEA AUXILIAR SANITARIO/A CENTRO A. LEIOA	2	31/12/2017

11102	4181	079	LEIOA L.ZENTROKO OSASUN LAGUNTZAILEA AUXILIAR SANITARIO/A CENTRO A. LEIOA	2	31/12/2017
11102	5126	017	TXANDAKAKO ZERBITZARI-GARBITZAILEA CAMARERO/A LIMPIADOR/A CON TURNICIDAD	1	31/12/2017
11102	5126	045	TXANDAKAKO ZERBITZARI-GARBITZAILEA CAMARERO/A LIMPIADOR/A CON TURNICIDAD	1	31/12/2017
11102	5126	086	TXANDAKAKO ZERBITZARI-GARBITZAILEA CAMARERO/A LIMPIADOR/A CON TURNICIDAD	1	31/12/2017
11102	5126	096	TXANDAKAKO ZERBITZARI-GARBITZAILEA CAMARERO/A LIMPIADOR/A CON TURNICIDAD	1	31/12/2017
11103	4178	038	BIRJINETXE L.ZENTROKO OSASUN LAGUNTZAILEA AUXILIAR SANITARIO/A CENTRO A. BIRJINETXE	2	31/12/2017
11103	4178	040	BIRJINETXE L.ZENTROKO OSASUN LAGUNTZAILEA AUXILIAR SANITARIO/A CENTRO A. BIRJINETXE	2	31/12/2017
11103	4178	044	BIRJINETXE L.ZENTROKO OSASUN LAGUNTZAILEA AUXILIAR SANITARIO/A CENTRO A. BIRJINETXE	2	31/12/2017
11103	2043	001	BIRJINETXE L.ZENTROKO GIZARTE LANGILEA TRABAJADOR/A SOCIAL CENTRO A. BIRJINETXE	3	31/12/2017
11104	5126	078	TXANDAKAKO ZERBITZARI-GARBITZAILEA CAMARERO/A LIMPIADOR/A CON TURNICIDAD	1	31/12/2017
11105	4175	016	ELORRIO L.ZENTROKO OSASUN LAGUNTZAILEA AUXILIAR SANITARIO/A CENTRO A. ELORRIO	2	31/12/2017
11107	5129	018	TXANDARIK GABEKO ZERBITZARI GARBITZAILEA CAMARERO/A LIMPIADOR/A SIN TURNICIDAD	1	31/12/2017
11210	5126	136	TXANDAKAKO ZERBITZARI-GARBITZAILEA CAMARERO/A LIMPIADOR/A CON TURNICIDAD	1	31/12/2017
11210	5126	137	TXANDAKAKO ZERBITZARI-GARBITZAILEA CAMARERO/A LIMPIADOR/A CON TURNICIDAD	1	31/12/2017
1133	2164	004	PORTUGALETE ETXBIZITZAKO ADINGABEEN HEZITZILEA EDUCADOR/A DE MENORES HOGAR PORTUGALETE	3	31/12/2017
13	5127	003	ATEZ ETA MANT. LANETAKO BEHARGINA TXAN. GBE. PORT: OP: MANTE. BASICO SIN TURNICIDAD	2	31/12/2017
1132	2196	007	EGOITZA HARRERAKO TEKNIKARI ERTAINA TECNICO/A MEDIO DE ACOGIMIENTO RESIDENCIAL	3	31/12/2017

## 5. HIZKUNTZA-TREBAKUNTZAKO PLANA

Hizkuntza-TrebaKuntzarako Planak bi eratako jarduera-egitasmo zehazten ditu: hizkuntza gaitasuna lortzera zuzentzen dena eta euskara lan eta zerbitzu hizkuntza ere izan dadin trebatze eta sustatzera bideratzen dena.

### 5.1 HIZKUNTZA GAITASUNA LORTZEKO JARDUERA-EGITASMOA

#### 5.1.1. Xedea

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko langileen hizkuntza gaitasuna gehitu eta hobetzea.

#### 5.1.2. Jarduerak

- Euskara ikastaroak

#### 5.1.3. Adierazleak

- Ikastaroetan parte hartu eta hizkuntza eskakizuna egiaztatu duten langileen ehunekoa
- Ikastaroetan parte hartzeko eskaera kopurua.
- Onartutako eskaera kopurua
- Onartu gabeko eskaera kopurua
- Euskara ikastaroetan emandako ordu kopurua

#### 5.1.4. Nori zuzenduta dago plan hau

Aurreko atalean adierazi dugunez, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakunderako langile guztiei dago zuzenduta plan hau. Hala ere, GUFeko langile guztiek ez dute erakundearekiko kontratu-harreman bera, eta horren ondorioz aukerak eta lehentasunak ezberdinak izan behar dira, langile bakoitzak duen kontratu-motaren arabekoak eta lanpostu bakoitzak ezarria duen hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-datarekiko egoeraren arabekoak.

Bi egoera horiek kontuan harturik, eta hizkuntza-trebaKuntzako ikastaroen eskaintza antolatu nahian, GUFeko langileak hurrengo multzotan edo taldetan banatu dira:

#### ***I. taldea:***

Lanpostuaren hizkuntza eskakizuna, derrigortasun data izan zein ez, egiaztaturik ez duten dedikaziorik gabeko GUFeko langileak izan eta Gizarte

Urgazpenerako Foru Erakundearekiko kontratu-mota hauetariko bat dutenak:  
lan kontratu mugagabeko langileak eta karrerako funtzionarioak

Berez dagokien hizkuntza-eskakizuna beteta eduki arren, goragoko beste hizkuntza-eskakizun bat ezarri zaien eta hizkuntza-eskakizun hori egiaztaturik ez duten (nahiz eta aurrekoa egiaztatuta edukitzeagatik berria betetzetik salbuetsita egon) dedikaziorik gabeko GUFeko langileak, betiere Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearekiko kontratu-mota hauetariko bat dutelarik:  
lan kontratu mugagabeko langileak eta karrerako funtzionarioak

**II. taldea:**

Dedikaziorik gabeko langileak derrigortasun-datarik esleituta ez dutenak edota derrigortasun-data izanik lanpostuari dagokion HE egiaztaturik daukatena eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearekiko kontratu-mota hauetariko bat dutenak: lan kontratu mugagabeko langileak eta karrerako funtzionarioak

**III. taldea:**

Lanpostu hutsa edo honen parekoa betetzen ari diren bitarteko langileak, lanaldi osoan kontratatutako pertsonak erretiro partziala txandakatzeagatik; betiere derrigortasun data esleituta badute edo administrazio-unitate elebidunean badaude.

**IV. taldea:**

Lansaioa murriztua muga gabeko kontratua duten pertsonak, lanaldi osoan kontratatutako pertsonak erretiro partziala txandakatzeagatik; hizkuntza trebakuntza pertsonalizatua hartzea nahi ez duten bitarteko langileak, lanpostu hutsa edo honen parekoa betetzen ari diren bitarteko langileak betiere III. taldean sartuta ez badaude, eta, gainera, dedikaziorik ez badute.

**V. taldea:**

Dedikazioa duten langile guztiak.

Aurreko atalean aipatutako kontratu-motetariko bat ez duten gainerako langileek ezin izango diote ikastaroen eskaintzari heldu. Salbuespen moduan, bere taldeari dagozkion ikastaroetara joateko ezintasuna behar den moduan arrazoitzen duten langileek beste batzuetara joatea eskatu ahal izango dute, betiere aurretik departamentu edo dibisioaren buruaren oniritziarekin eta euskara arloarekin eta euskara sustatzeko zuzendaritza nagusiarekin bat etorritik.

Nolanahi ere, etorkizunean sor daitezkeen kontratu-mota ezberdinen bidez kontratatutako pertsonak talde batean edo bestean sartuko dira, berez egin zaien kontratu-motaren ezaugarri berezien arabera, kontratuaren iraupenaren arabera, prestazioa gauzatu behar den urteko sasoiaren arabera eta kontratazioak ukitutako unitatearen zuzeneko antolaketan eragin dezakeen beste edozein ezaugarriren arabera.

Ondoren zerrendatuko diren ikastaroen eskaintza Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan dauden aurrekontuetako zuzkidurei lotuta egongo da. GUFEn, ikastaro horietara joango direnak ordezkatzeko bideratuta dauden baliabide ekonomikoak nahiko ez balira ikastaro horien eskariari erantzuteko, hurrengo lehentasun-hurrenkerari jarraituz egingo da ikastaroetako langileen onarpena:

- 1) Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lan-kontratu finkoko langileak, dedikaziorik gabekoak.
- 2) Dedikazioa duten lan kontratu finkoko langileak, derrigortasun data izan zein ez..
- 3) Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ez duten lan-kontratu finkoko langileak, dedikaziorik gabekoak.
- 4) Lan-kontratu finkoko langileak, berez beren lanpostuei dagokiena baino goragoko euskalduntze edo alfabetatze maila lortzeko.
- 5) Aldi bateko lan kontratuko langileak, betetzen ari diren lanpostuari esleitutako hizkuntza-eskakizuna lortu arte. Atal honetan, lehentasuna izango dute lanpostu hutsa bete arte lanpostu horretan ari direnek.

Hala ere, ehunekoak betetzea eta ikastaroetara joatea erakundearen antolaketari egokitu beharko zaizkio; jarduketa arlo bakoitzaren %50 errespetatu behar da plangintzaldiak iraun bitartean, zerbitzuen beharrezkoen arabera. Hau da lehentasunen hurrenkera:

- a) Hizkuntza trebakuntzaren jarduera planean dagoena
- b) Euskararen ezagutza maila altuena egiaztatuta duena.
- c) Lanpostuan antzinasun gehien duena
- d) Aldez aurretik erakundearen antolaketa arazoengatik ezetza hartu duena.

*Amatasun eta aitatasun, babes eta adopzioagatiko lizentzia-baxak.*— Egoera horietariko batean dauden langileek, trebakuntzako bestelako ikastaroekin gertatu ohi denez, GUFeko gainerako trebakuntza-ikastaroetarako baldintza beretan egin ahal izango dituzte euskara-ikastaroak.

## 5.2. IKASTAROEN ESKAINTZA OROKORRA.

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak bere langileei egiten dien ikastaroen eskaintza, HAEEK onartutako ikastaro-moten arabera izango da. Nolanahi ere, GUFeko langileek ikastaroen eskaintzaz baliatu ahal izango dira, baldin eta esleitu zaien ordu-kredituan aldeko saldoa badute.

### 5.2.1. Ikasturte osoko ikastaroak

#### 5.2.1.1. Barnetegiko ikastaroak

Barnetegiko ikastaro hauek, IVAPek zehaztutako barnetegietan egin daitezke.

##### Hartzaileak:

I eta II. taldeen barruko langileak, betiere, titular diren lanpostua betetzen badute. Ikastaro mota honi heldu ahal izateko nahitaezkoa izango da 3. urratsa egiaztaturik edukitzea.

II taldeko langileak, aukera honetaz baliatuko dira, 3. HE egiaztatzeke, betiere, ordu-kredituan aldeko saldoa izanez gero.

##### Baldintzak

Ikastaro-mota hau barnetegi batean egin beharko da oso-osorik, beraz ez da bestelako modalitatearik (pentsio erdia, esaterako) onartuko.

Ikastaroek lauhileko iraupena izango dute (urritik otsailera eta otsailetik ekainera), eta ikastaroen hasiera eta amaiera, baita jaiegunak ere, euskaltegiaren egutegian finkatutakoak izango dira.

Ikastaro hauetarako izena emateko nahitaezkoa izango da euskalduntzeko 3. urratsa gaindituta edukitzea.

Erakundeek beraiek (GUFek eta HAEEK) ordainduko dituzte matrikula eta egonaldiko gastuak.

Joan-etorriek sortutako gastuetarako, astean behineko bidaia bat (joan-etorria) baino ez da ordainduko. Langileak, hilaren bukaeran, hil horri dagozkion joan-etorriek sortutako gastuen likidazioa aurkeztu beharko dio Zerbitzu Orokorraren Departamenduko buruari; likidazioak Hizkuntz Normalizazio Atalaren onarpenera (O.E.) eduki behar du.

##### Arautegia

- -Ordu-kreditua ikastaroan zehar kontsumituz joango da eta horretarako hilero emandako ikastordua zenbatuko dira. Ikasleari dagokion taldearen lehen ikastaro-egunetik egingo da zenbaketa hori, ikasturtearen amaiera arte



edo, bestela, ikasleak ikastaroan behin betiko baxa hartu arte. Hau da, pertsona bat bajaran badago ordu kreditua kontsumitzen jarraitzen du ikastaroan behin betiko baxa hartu ezik. Alta hartu ta gero ikastarora hastea eskatu behar da, Hizkuntz Normalizazioak ezartzen duen mailako taldean.

- -Euskara ikastaroa hasi ahal izateko, nahitaezkoa izando da ordu-kreditu positiboa edukitzea. Pertsona bati ikastaroan zehar kreditua agortzen bazaio, ikastaroa amaitu arte jarraitu ahal izando du. Nolanahi ere, hizkuntza-eskakizuna gaindituz gero eta ikasleak goragoko hizkuntza-eskakizuneko hizkuntza-trebakuntza jasotzen jarraitu behar badu, ordu-kredituaren saldoa agortu denez gero ikastaroko trebakuntza-orduak berdin-berdin zenbatuko dira ondoreetako ordu-kredituaren eguneratzeko.
- -Pertsona bati ordu-kreditua dagokion hizkuntza-eskakizuna gainditu gabe agortu zaionean, ez zaio Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan honen itzalpean finantzatuko euskara ikastaroetarako eskabide berririk onartuko. Dagokion hizkuntza-eskakizuna gainditzen denean, berriz, arautegi honen itzalpeko beste euskara-ikastaro bat egin daiteke.
- Hizkuntza-eskakizun bakoitzerako ezarritako ordu-kredituak erabili ahal izateko, ikasleak IVAPek deitutako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko ariketa ofizialetara aurkezteko konpromisoa hartzen du ikasketa prozesuaren hizkuntza-eskakizun bakoitzari dagozkion urratsak egin ostean, hau da, 1. Herako 6. urratsa, 2. Herako 9. urratsa eta 3. Herako 12. urratsa
- -Eskola-orduetatik kanpo hartuko dira arauzko oporrak, norberak har dezakeen aukerako 7 egun libreak, izan ezik.
- Bulego ordutegiko ikasleek ezin izango dute Gabon eta Aste Santu txandako egunik hartu, horietarako zehatuta dauden epeetatik kanpo eta, beti ere, eskola gabeko egunak kontuan hartuta. Egutegi bereziko ikasleei (txandako lanaldia) txanda hauek euren ordu poltsatik, lizentzietatik edo oporretatik kenduko zaizkie. Lauhileko ikastaro biak jarraian egiten badira (urritik otsailera eta otsailetik ekainera) euren arteko asteburuan ez da lanera joan behar, karteldegian hala egokitzen bazaio.
- -Euskara ikastaroa egiten den ordutegian ezin daiteke bestelako ikastarorik egin. Derrigorrezko prestakuntzarako ikastaroak salbuespentzat hartuko dira, zerbitzuburuak aldeztatik horrela adieraziz gero.
- -Justifikazio gabeko ez bertaratzeak lanera ez agertzeagetik faltatzat joko dira.
- -Kontrola hilabetero egingo da. Asistentzia hutsak egonez gero, interesatuari komunikatuko zaio 4 eguneko apean justifikatu ahal izateko; horrela egin ezean Antolaketa zerbitzura bidaliko da abisua, deskontua egin dezan.

- -Gaixotasun baja:bajak eta altak Zentroan tramitatuko dira eta horien kopia aurkeztuko da Hizkuntza Normalizazioko Atalean.
- -Ikastaroan baja emotea:bajaren benetako data baino hiru egun lehenago jakinarazi behar da Euskara Arloan,"gufe.trebakuntza" postontzira mezu elektronikoa bat bidalita edo idatzi bat erregistroan aurkeztuta. Euskaltegiari ere jakinarazi egin behar dio. Euskara Arloak Hizkuntza Normalizazioari jakinaraziko dio eskolak utzitako data aurrerantzean ordu-krediturik ez kentzeko.
- -Gorabeherak,oporrak eta lizentziak norberaren zentroan tramitatuko dira eta horien kopia aurkeztuko da Hizkuntza Normalizazio Atalean.

#### **5.2.1.2. Bost orduko ikastaroak**

Behin mailaketa frogak egin ondoren, IVAPek esleituko dio bakoitzari zein euskaltegitan egin behar duen ikastaroa, taldea sortu bada.

##### Hartzaileak:

I eta II. taldeen barruko langileak, betiere, titular diren lanpostua betetzen badute.

II taldeko langileak, aukera honetaz baliatuko dira, 3. HE egiaztatzeko, betiere, ordu-kredituan aldeko saldoa izanez gero.

##### Baldintzak

Ikastaro hauetara doazen langileek lansaio osotik salbuetsita egongo dira, beraz ikasturteak iraun bitartean ikastarora doazenek ez dute fitxatu behar izango, baina erabateko puntualtasuna gorde beharko dute eta ezin izango dute malgutasunez jokatu ikastarora sartu eta ikastarotik ateratzeko orduan.

Ikastaroek lauhileko iraupena izango dute (urritik otsailera eta otsailetik ekainera), eta IVAPek zehaztuko ditu ikastaroen hasiera eta amaiera eta baita jaiegunak ere.

##### Arautegia

- Ordu-kreditua ikastaroan zehar kontsumituz joango da eta horretarako hileroko emandako ikastorduak zenbatuko dira. Ikasleari dagokion taldearen lehen ikastaro-egunetik egingo da zenbaketa hori, ikasturtearen amaiera arte edo, bestela, ikasleak ikastaroan behin betiko baxa hartu arte. Hau da, pertsona bat bajaran badago ordu kreditua kontsumitzen jarraitzen du ikastaroan behin betiko baxa hartu ezik. Alta hartu ta gero ikastarora hastea eskatu behar da, Hizkuntza Normalizazioak ezartzen duen mailako taldean.

- -Euskara ikastaroa hasi ahal izateko, nahitaezkoa izando da ordu-kreditu positiboa edukitzea. Pertsona bati ikastaroan zehar kreditua agortzen bazaio, ikastaroa amaitu arte jarraitu ahal izando du. Nolanahi ere, hizkuntza-eskakizuna gaindituz gero eta ikasleak goragoko hizkuntza-eskakizuneko hizkuntza-trebakuntza jasotzen jarraitu behar badu, ordu-kredituaren saldoa agortu denez gero ikastaroko trebakuntza-orduak berdin-berdin zenbatuko dira ondoreetako ordu-kredituaren eguneratzeko.
- -Pertsona bati ordu-kreditua dagokion hizkuntza-eskakizuna gainditu gabe agortu zaionean, ez zaio Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan honen itzalpean finantzatuko euskera ikastaroetarako eskabide berririk onartuko. Dagokion hizkuntza-eskakizuna gainditzen denean, berriz, arautegi honen itzalpeko beste euskara-ikastaro bat egin daiteke.
- Hizkuntza-eskakizun bakoitzerako ezarritako ordu-kredituak erabili ahal izateko, ikasleak IVAPek deitutako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko ariketa ofizialetara aurkezteko konpromisoa hartzen du ikasketa prozesuaren hizkuntza-eskakizun bakoitzari dagozkion urratsak egin ostean, hau da, 1. H Erako 6. urratsa, 2. H Erako 9. urratsa eta 3. H Erako 12. urratsa
- -Eskola-orduetatik kanpo hartuko dira arauzko oporrak, norberak har dezakeen aukerako 7 egun libreak, izan ezik.
- Bulego ordutegiko ikasleek ezin izango dute Gabon eta Aste Santu txandako egunik hartu, horietarako zehatuta dauden epeetatik kanpo eta, beti ere, eskola gabeko egunak kontuan hartuta. Egutegi bereziko ikasleei (txandako lanaldia) txanda hauek euren ordu poltsatik, lizentzietatik edo oporretatik kenduko zaizkie. Lauhileko ikastaro biak jarraian egiten badira (urritik otsailera eta otsailetik ekainera) euren arteko asteburuan ez da lanera joan behar, karteldegian hala egokitzen bazaio
- -Euskara ikastaroa egiten den ordutegian ezin daiteke bestelako ikastarorik egin. derrigorrezko prestakuntzarako ikastaroak salbuespentzat hartuko dira, zerbitzuburuak alde aurretik horrela adieraziz gero.
- -Justifikazio gabeko ez bertaratzeak lanera ez agertzeagetik faltatzat joko dira.
- -Kontrola hilabetero egingo da. Asistentzia hutsak egonez gero, interesatuari komunikatuko zaio 4 eguneko apean justifikatu ahal izateko; horrela egin ezean Antolaketa zerbitzura bidaliko da abisua, deskontua egin dezan.
- -Gaixotasun baja: bajak eta altak Zentroan tramitatuko dira eta horien kopia aurkeztuko da Hizkuntza Normalizazioko Atalean.
- -Ikastaroan baja emotea: bajaren benetako data baino hiru egun lehenago jakinarazi behar da Euskara Arloan, "gufe.trebakuntza" postontzira mezu

elektroniko bat bidalita edo idatzi bat erregistroan aurkeztuta. Euskaltegiari ere jakinarazi egin behar dio. Euskara Arloak Hizkuntza Normalizazioari jakinaraziko dio eskolak utzitako data jarri eta aurrerantzean ordu-krediturik ez kentzeko.

- -Gorabeherak,oporrak eta lizentziak norberaren zentroan tramitatuko dira eta horien kopia aurkeztuko da Hizkuntza Normalizazio Atalean.

## 5 ORDUKO ETA NEGUKO BARNETEGIKO EUSKARA IKASTAROAK NORBERAREN AUKERAKO EGUNAK ESKATZEKO IRIZPIDEAK

1. Eskabide-orria lan-zentrora eraman behar da; orrian "5 orduko euskara ikastaroa edo neguko barnetegia" adierazi.
2. Aipatutako egunak euskaltegiaren egutegiaren arabera eskatuko dira, zentroko arautegian ezarritako eran eta epean.
3. Eskaera Zerbitzu Zentraletako ordutegi kontrolean grabatuko da.
4. Zerbitzu Zentraletako ordutegi kontrolean ondoko kenketa egingo zaie langileei eskatzen duten egun bakoitzeko:
  - Lanaldi jarraitua dutenei:
    - 4.1. Astean arratsalde batez lan egiten dutenei: 7 ordu eta 15 minutu.
    - 4.2. Goizez bakarrik lan egiten dutenei:
      - I. Modalitatea: 7 ordu eta 33 minutu
      - II. Modalitatea: 7 ordu eta 30 minutu
  - Zentroetan eta etxebizitzetan txandaka lan egiten dutenei:
    - 4.3. 2 txandatan ari direnei: 7 ordu
    - 4.4. 3 txandatan ari direnei: 8 ordu
5. Eskabide-orriaren kopia bat, dagokion burutzaren oniritzia duena, Hizkuntza Normalizaziora eraman behar da (Errekalde Zumardia 30, 5. solairua).

### **5.2.1.3 Lan-ordutegiaren barruko goizeko ikastaroak**

Behin mailaketa frogak egin ondoren, IVAPek esleituko dio bakoitzari zein euskaltegitan egin behar duen ikastaroa.

#### Hartzaileak:

I, II, eta V. taldeen barruan dauden langileak, betiere, titular diren lanpostua betetzen badute. III. taldeko langileak; betiere, txandakako lansaioa ez badute. II. Eta III taldekoak aukera honetaz baliatuko dira, 3. HE egiaztatzeko, betiere, ordu-kredituan aldeko saldoa izanez gero

### Baldintzak

Ikastaro hauetara doazen langileek fitxatu egin beharko dute lanlekura iristean, euskaltegitik itzuli ondoren.

Ikastaroaren ordutegia: 8:00etatik 10:00etara

Ikastaro-mota honek ikasturte osoa iraungo du (urritik ekainera) eta IVAPek zehaztuko ditu ikastaroen hasiera eta amaiera eta baita jaiegunak ere.

#### **5.2.1.4 . Eguneko bi ordu eta astean 10 orduko ikastaroak arratsaldez**

Ikastaro hauek homologatutako edozein euskaltegitan, publikoa nahiz pribatua izan, egin daitezke, eta interesatuak berak aukeratuko du zeinetan egin.

### Hartzaileak:

I, II, III, IV eta V. taldeen barruan dauden langileak.

### Baldintzak

Ikastaro-mota honetan interesatuta dauden pertsonak lan-ordutegitik kanpoko orduetan egin beharko dute ikastaroa.

Ikastaro-mota honek ikasturte osoa iraungo du (urritik ekainera). Ikastaroaren hasiera eta amaierako datak eta ikastaroaren egutegia aukeratutako euskaltegiak dituenak izango dira.

Ikastaro mota honetan ez dago ordutegiaren malgutasunik

### Langileen ordutegia:

- **Astean arratsalde baten lan egiten duten** langileentzat: 8:00etatik 14:00etarako lansaioa. Lansaio trinkoko aldia (ekainea), lansaioa 8:30etatik 13:30etara izango da.  
Langile hauek berez dagokien astean behineko arratsaldetik salbuetsita daude.
- **Goizez bakarrik lan egiten duten** langileentzat: 7:40etatik 14:00etarako lansaioa. Lansaio trinkoko aldia (ekainea), lansaioa 8:00etatik 13:00etara izango da.
- **Zatitutako lansaioko langileentzat:** 6 ordu eta 20 minutuko lansaioa. Lansaio trinkoko aldia (ekainea), lansaioa 8:30etatik 13:30etara izango da.
- **Txandakako lansaioa:** GUFEk langilea benetako lanaldian dagoenean eskolara joaten den ordu-kopuruaren erdia konpentsatuko du, behar dan ziurtagiria zentroan aurkeztuz. Ordu hauek urria-ekaina ikasturtea bukatzen den urteko abenduaren 31ra arte hartu ahal izango dira.

Librantza horiek eskola-egunei dagozkie, hau da, eskolarik ez dagoen egunetan edo eskolara joaten ez den egunetan ohiko lansaioa beteko beharko da lanean.

#### **5.2.1.5. Eguneko bi ordu eta astean 8 orduko ikastaroak, arratsaldez**

Ikastaro hauek homologatutako edozein euskaltegitan, publikoa nahiz pribatua izan, egin daitezke, eta interesatuak berak aukeratuko du zeinetan egin.

#### Hartzaileak:

I, II, III, IV eta V. taldeen barruan dauden langileak.

#### Baldintzak

Ikastaro-mota honetan interesatuta dauden pertsonak lan-ordutegitik kanpoko orduetan egin beharko dute ikastaroa.

Ikastaro-mota honek ikasturte osoa iraungo du (urritik ekainera). Ikastaroaren hasiera eta amaierako datak eta ikastaroaren egutegia aukeratutako euskaltegiak dituenak izango dira.

Interesatuak jakinarazi beharko dio Hizkuntza Normalizazioari asteko zein egunetan ez duen eskolarik izango.

Ikastaro mota honetan ez dago ordutegiaren malgutasunik

#### Langileen ordutegia:

- **Astean arratsalde baten lan egiten duten** langileentzat: 8:00etatik 14:00etarako lansaioa. Lansaio trinkoko aldia (ekainean), lansaioa 8:30etatik 13:30etara izango da.  
Langile hauek berez dagokien astean behineko arratsaldetik salbuetsita daude.
- **Goizez bakarrik lan egiten duten** langileentzat: 7:40etatik 14:00etarako lansaioa. Lansaio trinkoko aldia (ekainean), lansaioa 8:00etatik 13:00etara izango da.
- **Zatitutako lansaioko langileentzat:** 6 ordu eta 20 minutuko lansaioa. Lansaio trinkoko aldia (ekainean), lansaioa 8:30etatik 13:30etara izango da.
- **Txandakako lansaioa:** GUFEk langilea benetako lanaldian dagoenean eskolara joaten den ordu-kopuruaren erdia konpentsatuko du, behar dan ziurtagiria zentroan aurkeztuz. Ordu hauek urria-ekaina ikasturtea bukatzen den urteko abenduaren 31ra arte hartu ahal izango dira.
- Librantza horiek eskola-egunei dagozkie, hau da, eskolarik ez dagoen egunetan edo eskolara joaten ez den egunetan ohiko lansaioa beteko beharko da lanean.

#### 5.2.1.6. Autoikaskuntza ikastaroak

Ikastaro hauek euskaltegi publiko edo pribatu homologatu batean, edo autoikaskuntzako zentro homologatu batean egin ahal izango dira.

##### Hartzaileak:

Txandakako lansaioa egiten duten I., II., III. eta IV. taldeetako langileak, betiere IVAPek ezartzen dituen neurriak betez gero.

##### Baldintzak

Autoikaskuntzako ikastaroak: lanorduz kanpo egin beharko dira, eta gutxienez 190 orduko iraupena izan behar dute. Ez du konpentsaziorik sortuko.

#### 5.2.1.7. 4. HE prestatzeko ikastarora

Ikastaro honetako eskolak IVAPeko geletan izango dira edo erakundeak zehaztutako tokian.

##### Norentzat

Karrerako funtzionarioek edo lan-kontratu mugagabeko langileek hartu ahal izango dute parte ikastaro hauetan, betiere, betetzen duten lanpostuak 3. HE badauka, derrigorotasun data izan zein ez.

##### Baldintzak

Ikastaro honetan parte hartzeko 3.HE egiaztatua edo baliokideren baten ziurtagiria izan behar da. Horretaz gain, sarrera proba egingo zaie eta ikastaroan onartua izateko proba hori gainditua izan beharko da, derrigorrean.

##### Ikastaroa

Ikastaroa astean lau egunekoa izango da, egunean bi ordukoa, astelehenetik ostegunera.

Lan ordutegitik kanpo egingo da: 15:30-17:30

Urritik ekainera izango da. IVAPek zehaztuko du hasiera data eta egutegia.

##### Langileen ordutegia:

- **Astean arratsalde baten lan egiten duten** langileentzat: 8:00etatik 14:00etarako lansaioa. Lansaio trinkoko aldian (ekainean), lansaioa 8:30etatik 13:30etara izango da.

Langile hauek berez dagokien astean behineko arratsaldetik salbuetsita daude.

- **Goizez bakarrik lan egiten duten** langileentzat: 7:40etatik 14:00etarako lansaioa. Lansaio trinkoko aldian (ekainean), lansaioa 8:00etatik 13:00etara izango da.
- **Zatitutako lansaioko langileentzat**: 6 ordu eta 20 minutuko lansaioa. Lansaio trinkoko aldian (ekainean), lansaioa 8:30etatik 13:30etara izango da.
- **Txandakako lansaioa**: GUFEk langilea benetako lanaldian dagoenean eskolara joaten den ordu-kopuruaren erdia konpentsatuko du, behar dan ziurtagiria zentroan aurkeztuz. Ordu hauek urria-ekaina ikasturtea bukatzen den urteko abenduaren 31ra arte hartu ahal izango dira.
- Librantza horiek eskola-egunei dagozkie, hau da, eskolarik ez dagoen egunetan edo eskolara joaten ez den egunetan ohiko lansaioa beteko beharko da lanean.

## 5.2.2. Udako ikastaroak

### 5.2.2.1. Barnetegiko ikastaroak

#### Xedea eta hartzaileak

Ikasleek, ikasturtean zehar eskuratu dituzten ezagupenak finkatu ahal izan dezaten da ikastaro hauen xedea. Beraz, edozein langile joan daiteke ikastaro hauetara, betiere ikasturtean zehar Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Planaren barruko euskara-ikastaroren bat egin badu.

#### Barnetegiko ikastaroen ezaugarriak

Ikastaro-mota hau barnetegi batean egin beharko da oso-osorik, beraz ez da bestelako modalitaterik (pentsio erdia, esaterako) ez eta asteburuetan etxera etortzerik onartuko.

Uztail, abuztu edo irailean egingo dira ikastaro hauek.

HABEk homologatutako ikastaroak izan behar dira.

Euskaltegi pribatuek edo homologatutako pribatuek antolatutakoak izan behar dira.

13 edo 15 eguneko iraupena izango dute, gutxienez 90 eskola-ordu.

#### Baldintzak

Ikastaro hauetara doazenak lanetik aske geratuko dira epe horrek iraun bitartean.

Planaren barruan udako barnetegi bateko ikastaro bat baino ezin izango da egin.

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak eta IVAPek ordainduko dituzte matrikularen eta egonaldiaren gastuak.

Joan-etorriek sortutako gastuetarako, barnetegiko ikastaro bakoitzeko bidaia bakarra (joan-etorria) ordainduko da. GUFeko langileak, barnetegirako joan-etorriek sortutako



gastuen likidazioa Zerbitzu Orokorren Departamenduko buruari aurkeztu beharko dio; likidazioak Hizkuntz Normalizazio Atalaren onarpena (O.E.) eduki behar du.

### **5.2.2.2. Udako ikastaro trinkoak**

#### Hartzaileak

III eta IV. taldeetako langileak.

IKASTARO TRINKOEN EZAUGARRIAK

Uztail, abuztu edo irailean egingo dira ikastaro hauek.

HABEK homologatutakomikastaroak izan behar dira.

Euskaltegi publikoek edo homologatutako pribatuek antolatutakoak izan behar dira.

Ikastaroaren iraupena: hilabetekoa, egunean bost ordu eta hilean 100 eskola-ordu.

#### Baldintzak

Ikastaroak lan-orduetatik kanpo izango dira.

Ikastaro hauetara txandako lanaldia ez duten langileen ordutegia: 08:30-13:30.

Txandaka lan egiten duten langileen ordutegia: GUFEk langilea benetako lanaldian dagoenean eskolara joaten den ordu-kopuruaren erdia konpentsatuko du, behar dan ziurtagiria zentroan aurkeztuz. Ordu hauek ikastaroa egiten den urteko abenduaren 31ra arte hartu ahal izango dira, betiere udako planning-etik kanpo.

## **5.4 EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO JARDUERA-EGITASMOA**

### **5.4.1. HELBURUAK**

- GUFeko langileek berez dituzten eginkizun eta zereginak hizkuntza ofizial bietako edozeinetan garatu ahal izatea eta ezinbestekoa denean baino ez dutela itzulpen zerbitzura joko bermatzea.
- GUFeko jarduera eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko araudia betetzen dela bermatzea.
- Euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izan dadin beharrezko baldintzak sortzea.
- Motibazioa lantzeko alderdi guztiak jorratzea.

#### 5.4.2. JARDUERAK

- Modulu presentzialak
- On Line modulua
- Zerbitzu, arlo edo unitateko modulua

##### 5.4.2.1. Modulu presentziala

Parte-hartzaileen hizkuntza-ezagutzaren arabera aukera bi daude:

##### 5.4.2.1.1. Erabilera Sustatzeko modulua

###### 5.4.2.1.1.1. Xedea

Langileei, berez dituzten eginkizun eta zereginak hizkuntza ofizial bietako edozeinetan, batean zein bestean, garatu ahal izateko hizkuntza-ezagutza nahikoa ematea da modulu honen xedea.

###### 5.4.2.1.1.2. Norentzat den

GUFeko langileentzat. Aldi baterako kontratatutako langileek parte hartu ahal izango dute modulu honetako jardueretan, baldin eta, ondoko bi baldintzak betetzen badituzte: eskatutako euskara-mailaren jabe badira, eta GUFerekin duten lan-harremana ikasturte guztira luzatzen bada.

###### 5.4.2.1.1.3. Baldintzak

2. HE egiaztaturik edukitzea edo 2. HE horren pareko ahozko euskara-maila erakustea.

Trebatze-saioak lan ordutegiaren barruan egingo dira.

###### 5.4.2.1.1.4. Trebatze-saioen egituraketa

Oinarrizkoa: jarduera-egitaraua 300 ordukoa izango da, eta hiru ikasturtetan emango da.

Astean hiru ordu izango dira, horrela banatuta: ordu t'erdiko bi saio edo ordubeteko hiru saio.

Aurreratua: moduluko jardueren programa aurreratua oinarrizkoa egin dutenentzat izango da. Astean ordu bateko taldeko saioa eta hamabostean behin banako saioa egingo dira.

#### 5.4.2.1.1.5. Eskabidea egiteko era

Irailean zabalduko da eskabidea egiteko epea. Interesdunak ATARILEKUKO-EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO PLANA lekuan agertzen den eskaera bete beharko dute.

#### 5.4.2.1.1.6. Jardueretara joateari buruzko arautegia

Lanpostu bakoitzaren trebakuntzaren barruan sartzen da Euskararen Erabilera Sustatzeko jarduera-egitasmoa; hortaz, jardueretara nahitaez joan beharra dago.

##### *a) Oporrak*

Trebatze-saioen epealditik kanpo hartu beharko dira arauzko oporrak, norberak aukeran hartzeko dituen 7 egunak, antzintasun egunak eta norberen gaietarako lizentzia orduak izan ezik.

##### *c) Bateriaezintasunak*

Euskararen erabilera sustatzeko egitaraua bateraezina izango da ordutegi bereko beste edozein ikastarorekin. Salbuespen gisa, nahitaezko trebakuntzako ikastaroetara joateko baimena emango da, betiere zuzendariak edo buruak beren beregiko eskabidea egiten badu.

##### *d) Gorabeherak*

Ikasgelara ez agertzea zuritu beharko da frogagiri egokiarekin, ataleko edo zerbitzuko buruaren sinadurarekin batera, eta horren kopia Hizkuntz Normalizazio Atalera helaraziko da.

*Gaixotasun-bajak.* Bajak eta altak sailean bertan tramitatuko dira, haien kopia bat Hizkuntz Normalizazio Atalean aurkeztuta.

#### 5.4.2.1.1.7. Jardueretara joatearen gaineko kontrola

Jardunaldi bakoitzean, hizkuntza-trebakuntzako teknikari batek eskainiko dizkien bertaratzeko-orrria sinatu beharko dute langileek.

Saioen %10 baino gehiago galtzeak egitarauan jarraitzeko aukera galtzea ekarriko du.

#### 5.4.2.2. Birziklatze-Modulua

##### 5.4.2.2.1. Xedea

Hizkuntza gaitasuna lortzeko, bere sasoian, burutu zen ikasprozesuaren amaieran egiaztatutako euskara mailak, zenbait kasutan, denbora pasa ahala, atzerakuntza nabarmena izan du. Hizkuntza ezagupenean galdu dena berreskuratzea izango litzateke modulu honen xedea. Behin hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko ikasprozesua amaitu ondoren, askok euskararekiko duten harremana hutsaren hurrengoa da, lanpostuan zein lanpostutik kanpo. Horrek eragin izaten du atzerakada horretan.

##### 5.4.2.2.2. Norentzat den

GUFeko langileentzat eta euskara-mailaren atzerakada nabarmena gertatu bazaie.

##### 5.4.2.2.3. Baldintzak

Lanpostuei dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztaturik edukitzea.

Trebatze-saioak lan-ordutegiaren barruan egingo dira.

Modulu hau osagarria denez gero, modulu honetan parte hartzen duten langileek, modulua amaitutakoan, Erabilera Sustatzeko Moduluan ere parte hartu ahal izango dute.

##### 5.4.2.2.4. trebatze-saioen egituraketa

Modulu honen jarduera-egitaraua 200 ordukoa izango da eta bi ikasturtetan emango da.

Astean hiru ordu izango dira, horrela banatuta: ordu t'erdiko bi saio edo ordubeteko hiru saio.

##### 5.4.2.2.5. Modulu honetan sartzeko era

Eskabidea egindakoa, Hizkuntz Normalizazio Ataleko arduraduna izango da, hizkuntza-trebakuntzako teknikariei entzun eta gero, langileak birziklatze modulua egin behar duen ala ez baloratu ondoren, erabakiko duena.

##### 5.4.2.2.6. Trebatze-saioetara joateari buruzko arautegia

Erabilera Sustatzeko Modulurako zehaztu den arautegi bera.

#### 5.4.2.2. On line Modulua

On line modulua bateraezina izango da modulu presentzialarekin eta zerbitzuko moduluarekin, orduan ezin izango dira batera egin.

##### 5.4.2.2.1. Moodle

- Interneteko Moodle plataforma erabiliz , on-line bidezko ikastaroa.
- 20 orduko iraupena edukiko du.
- Ikastunitateetan idatzia landuko da.
- Ikastunitateetako gaiak lanarekin lotutakoak izango dira.
- Programa:
  - Idaztarauak: data, ordua, helbidea, zenbakiak, laburtzapenak
  - GUFEn erabiltzen diren inprimaki orokorrak (lizentzia, gorabehera fitxa...)
  - Lanarekin lotutako idazki eta dokumentuak
- Trebatzailearen laguntza ikastaro osoan.
- Hamabostero ordu biko saio presentziala mintzamina lantzeko.
- Ikastaroaren ziurtagiria ematen da.

#### BALDINTZAK

- Ordenadorea izatea
- Zentro eta etxebizitzetako langileentzat
- Interneterako konexioa izatea
- Posta elektronikoa izatea (bizkaia.net / yahoo / gmail...)
- Lan ordutik kanpo egin behar da.
- 1. HE egiaztaturik izatea edo hurbileko euskara maila edukitzea.
- GUFEn saio presentzialetako orduak konpentsatuko ditu. Horretarako saio bakoitzean trebatzaileak eskainiko dion bertaratze orria sinatu beharko du.

#### 5.4.2.2.2. Administrazio-hizkera 1.0 (On line euskaraz)

##### 5.4.2.2.2.1. Helburua

- Administrazioko langileak sentibilizatzea administrazio-hizkera egin beharraz, hizkera hori ulergarriago izan dadin

- Administrazioako langileei laguntza ematea administrazioako idazkiak argi, zehatz eta zuzen idatz ditzaten.

#### 5.4.2.2.2.2. Norentzat

Dokumentu administratiboak egiten dituzten administrariak eta teknikariak,

#### 5.4.2.2.2.3. Programa

- Hizkuntza administratiboaren ezaugarriak
- Bilera-deia
- Iragarkiak
- Eskaera
- Ziurtagiriak

#### 5.4.2.2.2.4. Iraupena, ordutegia eta irakasleak

Ikastaroaren iraupena 40 ordukoa izango da eta ordutegia 15:00etatik hurrengo eguneko 07:30era arte izango da. Irakasleak GUFeko trebatzaileak izango dira.

ADMINISTRAZIO HIZKERA 1.0 (ON LINE EUSKARAZ) ikastaroa amaitu ondoren parte-hartzaileek azterketa egin beharko dute eta hura gainditu eta gero, lanordu barruko lanpostuko hizkuntza trebakuntzan jarraitu ahal izango dute, betiere buruaren baimenarekin.

#### 5.4.2.2.3. Administrazio-hizkera 2.0 (On line euskaraz)

##### 5.4.2.2.3.1. Helburua

- Administrazioako langileak sentibilizatzea administrazio-hizkera egin beharraz, hizkera hori ulergarriago izan dadin
- Administrazioako langileei laguntza ematea administrazioako idazkiak argi, zehatz eta zuzen idatz ditzaten.

##### 5.4.2.2.3.2. Norentzat

Administrarientzat eta teknikarientzat, betiere 3. HE egiaztaturik badute eta ADMINISTRAZIO HIZKERA 1.0 (ON LINE EUSKARAZ) ikastaroa gainditu badute

##### 5.4.2.2.2.3. Programa

- Sarrera
- Bilera-akta

- Gutuna
- Ofizioa
- Txostena

#### 5.4.2.2.2.4. Iraupena, ordutegia eta irakasleak

Ikastaroaren iraupena 40 ordukoa izango da eta ordutegia 15:00etatik hurrengo eguneko 07:30era arte izango da. Irakasleak GUFeko trebatzaileak izango dira.

ADMINISTRAZIO HIZKERA 1.0 (ON LINE EUSKARAZ) ikastaroa amaitu ondoren parte-hartzaileek azterketa egin beharko dute eta hura gainditu eta gero, lanordu barruko lanpostuko hizkuntza trebakuntzan jarraitu ahal izango dute, betiere buruaren baimenarekin.

### 5.4.2.3. Zerbitzu, arlo edo unitateko modulua

#### 5.4.2.3.1. Helburua

- Langileei hizkuntza-ezagutza nahikoa ematea haien eginkizun eta zereginak euskaraz garatu ahal izateko.
- Halaber, hizkuntzaren ikuspegitik begiratuta, baldintza egokiak sortu nahi dira, zerbitzu, arlo edo unitateetan euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izan dadin.

#### 5.4.2.3.2. Norentzat

Parte hartu ahal izango dute EraMia antolatzeko baldintzak betetzen ez dituzten langileek, betiere unitate berekoak badira.

#### 5.4.2.3.3. Baldintzak

- Atal edo zerbitzu bereko langileen %50ek edo gehiagok parte hartzea. Egoera bereziak daudenean, hala nola lantokiari edo zerbitzu bereko atalek lanari lotutakoak, kasuan kasuko zerbitzuburuak txostena egin ondoren erabakiko da.
- Euskararen erabilera sustatzeko borondatea adieraztea.
- 2. HE edo goragokoa egiaztatua izatea.
- Planaren arautegia onartzea eta adostutako helburuak betetzeko zein plana bukatu arte jarraitzeko konpromisoa hartzea.

#### 5.4.2.3.4. Arautegia

Lanpostu bakoitzaren trebakuntzaren barruan sartzen da Euskararen Erabilera Sustatzeko jarduera-egitasmoa; hortaz, jardueretara nahitaez joan beharra dago.

*a) Oporrak*

Trebatze-saioen epealditik kanpo hartu beharko dira arauzko oporrak, norberak aukeran hartzeko dituen 7 egunak, antzinasun egunak eta norberen gaietarako lizentzia orduak izan ezik.

*c) Bateriaezintasunak*

Euskararen erabilera sustatzeko egitaraua bateraezina izango da ordutegi bereko beste edozein ikastarorekin. Salbuespen gisa, nahitaezko trebakuntzako ikastaroetara joateko baimena emango da, betiere zuzendariak edo buruak beren beregiko eskabidea egiten badu.

*d) Gorabeherak*

Ikasgelara ez agertzea zuritu beharko da frogagiri egokiarekin, ataleko edo zerbitzuko buruaren sinadurarekin batera, eta horren kopia Hizkuntz Normalizazio Atalera helaraziko da.

*e) Jardueretara joatearen gaineko kontrola*

Jardunaldi bakoitzean, hizkuntza-trebakuntzako teknikari batek eskainiko dizkien bertaratze-orria sinatu beharko dute langileek.

5.4.2.3.5. Helburuak

Aurreko baldintzak betetzen badira eta arautegia onartzen bada, Hizkuntza Normalizaziorako atalak, modulua eskatu dutenekin batera, horretarako ad hoc plana diseinatuko du. Plana egin baino lehen, ataleko hizkuntza jarduera planaren oinarriak izango diren, administrazio-atalaren partaideen funtzioak eta zereginak aztertuko dira, baita laneko dokumentazioa ere.

5.4.2.3.6. Eskaera

Modulu honetan parte hartu nahi duten langileek beren arduradunari eskatu beharko diote, eta honek eskaera Euskara Arlora bideratu, handik posta elektronikoa igorriko da Hizkuntza Normalizaziora, informazio honekin:

Administrazio-atalaren izena.

Administrazio-atalari buruzko informazioa: langile kopurua.

Parte hartu nahi duen langileen kopurua



Parte hartu nahi duten langileei buruzko informazioa (lanpostua, lan egoera, egiaztatutako HE).

#### **5.4.3. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO JARDUERA EGITASMOAREN ADIERAZLEAK**

- Planeko jardueretan parte hartzen duten langileetatik, zenbatek egiten duen lan euskaraz.
- Lanpostuko trebakuntzarako euskaraz eskaintzen diren ikastaroen ehunekoa.
- Lanpostuko trebakuntza euskaraz egiteko eskaera kopurua.
- Euskaraz emandako lanpostuko trebakuntza orduak.
- Euskararen erabilera gradua aplikazio informatikoetan eta Intraneten
- Motibatze tailer edo jarduera kopurua.
- Euskaraz eta gaztelaniaz egin diren administrazio-xedapen eta dokumentu ofizialen portzentajea.